

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Roland Barthes

DOLU-EGUNEROKOA

1977ko urriak 26 -1979ko irailak 15

Roland Barthes

DOLU-EGUNEROKOA

1977ko urriak 26 -1979ko irailak 15

Testuaren finkapena eta oharrak: Nathalie Léger

Itzulpena: Danele Sarriugarte



katakarak
liburuak

Jatorrizko izenburua (2009): *Journal de deuil*

Egilea: **Roland Barthes**

Jatorrizko eskubideak: © Éditions du Seuil / Imec, 2009

Itzulpena: **Danele Sarriguarte**

Barruko argazkia: **Katakarak**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: 2025eko martxoa

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKometziaziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-10316-08-9

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 576-2025

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
SARRERA (Nathalie Léger)	15
DOLU-EGUNEROKOA	
1977ko urriak 26 – 1978ko ekainak 21	17
EGUNEROKOAREN JARRAIPENA	
1978ko ekainak 24 – 1978ko urriak 25	169
[EGUNEROKOAREN JARRAIPEN BERRIA]	
1978ko azaroak 4 – 1979ko irailak 15	225
DATARIK GABEKO ZATI BATZUK	259
AMARI BURUZKO OHAR BATZUK	263





ARGITALETXEAREN OHARRA

ERRAUTSEN PEAN IRAUTEN DUEN ELURRAZ

... horretaz guztiaz arituko naiz aurrez ordenatu gabe eta une bakoitzean azaleratzen denak azaleratuko duen kapritxoan arabera.

André Breton, *Nadja*

Amaren heriotzarengatik idatzi zuen Roland Barthesek *Dolu-egunerokoa*. Eta Barthesen kasuan amak esan nahi du amaren heriotza baina esan nahi du Barthesen bizitza ia osoa eta, noski, baita haurtzaroa ere. Horregatik, ia oharkabean, Barthesek amarekin zuen lotura estu eta jarraian pentsatu eta Rilkerena omen den sententzia etortzen zaigu gogora: «pertsonen benetako aberria haurtzaroa da».

BARTHES ATURRI IBAIERTZEAN

Une jakin batetik aurrera, ia ezinezkoa —eta interesik gabekoa— da egiaztatzea egilearen teorien eta egilearen intimitatean garrantzitsuak diren gaien artean disonantziarik ote dagoen. Bada, intimitatearen polotik dago osorik idatzia Roland Barthes *par Roland*

Barthes [Roland Barthes Roland Barthesen arabera] baina hura irakurri ostean, haren lan teorikoetako asko oso bestela irakur daitezke. Alegia, Barthesen kezketako askok (*La Chambre claire* ezaguna, besteak beste) intimitatean dute iturria.

Edonola ere, *Roland Barthes par Roland Barthes* liburuak *Dolu-egunerokoa*-rekin duen antzekotasuna nabarmena da: teoriatik hitz egiten duen liburuetan ez bezala, bi liburuotako materialen abiapuntua bizitza da. Bizitza puskez osatuta daude.

Roland Barthes par Roland Barthes liburuak badu, halere, euskal irakurlearentzat garrantzitsua den berezitasun bat. Baiona du hastapenetik. Argazkiekin batera osatutako liburu bat da, eta lehenengoa Baionako Portu zaharra karrikatik egindako irudi bat da: arkupeak ikusten dira aurrean, eta Katedrala amaieran. Bigarren argazkian, ziurrenik Ahurtin, amaren besoetan dago Barthes. Hirugarrenean ere Baiona azaltzen da, eta zera dio Barthesek:

Baiona, Baiona, hiri bikaina: ibai-hiria, oihartzun handiko inguruek aireztatua (Mouserolles, Marrac, Lachepaillet, Beyris), eta, ordea, giltzaperatutako hiria, nobeletako hiria: Proust, Balzac, Plassans. Haurtzaroko oinarritzko imajinarioa: probintzia ikuskizun gisa, historia usain gisa, burgesia diskurtso gisa.

Eta, laugarrenean, harresi inguruetan egindako argazkien azpian:

Halako bide batetik jaisten nintzen normalki Poternerantz (usainak), eta hirigunerantz. Han egin zitekeen topo Baionako burgesiako dama batekin Areneseko txaletera igotzen zenean *Bon Goût* paketetxo bat eskuan zuela.

Eta Baionak jarraitzen du luze eta zabal, ñabar-dura guztiekin («Etxe hau ez da honezkero existitzen, Baionako higiezin agentziek bipildu zuten»).

Haurtzarotik zahartzarora arte izan zen erreferentziatzeko eremua Aturri ingurua, Lapurdi iparraldea, hala jasotzen da Koldo Izagirrek itzuli zuen *Sud-Ouestaren argia* testuan ere. Jatorriz, Frantziako Alderdi Komunistaren (PCF) *L'Humanité* egunkarian argitaratu zuen, 1977an, ama hil baino hilabete gutxi batzuk lehenago. Bitxia da jabetzea XX. mendeko pentsalari garrantzitsuetako batengan euskal lurrek utzi zuten arrastoa. Zaila da neurtzea, zenbateraino hartzen ote duten euskaldunek bertakotzat Barthes, eta horrela hartzeak interesik ote duen. Ezagun da badela halako peregrinazio bat Ahurtira, Euskal Herria bukatzen den udalerrira, Barthesen hilobiari bisita egitera. Bitxia da, eta liburu honen pertsonaiak eta gaia kontuan hartuta badu garrantzia: *Dolu-egunerokoaren* egilea eta dolua egitearen arrazoia (Henriette Barthes, Rolanden amaren heriotza) Aturriren ertzean topatzen ditugu («Ahurtin: triste, leun, sakon (ernegaziorik gabe)»).

Une delikatuak izaten dira maite ditugunen heriotzek ala bestelako galerek uzten dizkigutenak. Eta bestelako gai handiekin bezala, aurrez prestatzea izaten da onena:

Ezin diot uko egin, sinbolikoki, Ahurtin nagoen bakoitzean, iristerakoan eta alde egin aurretik, amaren hilobia ikustera joateri. Baina, parean nagoela, ez dakit zer egin. Oitoitz? Zer esan nahi du horrek? Zein da edukia?

Iruñea
2025eko martxoa

SARRERA

1977ko urriaren 25ean ama hil zitzaiolarik, Roland Barthesek, biharamunean, «Dolu-eguneroko» bat idazteari ekin zion. Tintaz idazten zuen, tarteka arkatzarekin, berak prestatutako txartel batzuetan: orrialde estandarrak hartu eta lau zatitan moztuz sortzen zituen txartelak, eta beti zeukan multzo bat lan-mahaian.

Egunerokoarekin ari zela, Roland Barthesek, aldi berean, Collège de France-rako «Le Neutre» [Neutroa] mintegia prestatu zuen, «Longtemps, je me suis couché de bonne heure» [Goiz oheratu izan naiz luzaroan] hitzaldia idatzi, zenbait aldizkari eta egunkaritan artikuluak kaleratu, 1979ko apiriletik ekainera *La Chambre claire* [Ganbera argitsua] liburua osatu, 1979ko udan «Vita Nova» proiektuko orri batzuk idatzi, eta Collège-rako beste mintegi bikoitz bat «La Préparation du roman» [Eleberriaren prestaketa] (1978ko abendua – 1980ko otsaila) prestatu zuen. Obra nagusi horien guztien oinarrian —denak ere bere amaren heriotzaren arrastoan kokatuak modu esplizituan—, «Dolu-eguneroko» honetako txartelak daude.

Txartelak, funtsean, Parisen idatzi ziren, bai eta Ahurtin ere, Baionatik gertu, non Roland Barthesek boladak ematen baitzituen anaia Michel eta haren emazte Rachelekin. Zenbait bidaiak ezartzen dute denboraren erritmoa; Marokora egindakoez bereziki: Roland Barthes maiz gonbidatzen zuten hara irakasle gisa, eta gogoko zuen joatea. Hemen, «Dolu-egunerokoa» orrialdez orrialde aurkezten da, bere osotasunean; txartelak kronologikoki kokatu ditugu, nahasteren bat irristatzen zen kasuetan; txartelaren formatuak berekin dakar idazketa beti laburra, baina txartel batzuk aurretik eta atzetik idatzita ageri dira, eta batzuetan testua jarraitu egiten du hurrengo txartelen aurrealdean; autoreak emandako inizialak bere gertukoei dagozkie, eta dauden horretan gorde dira; kortxeteak Roland Barthesenak dira; oin-ohar batzuk gehitu dira testuingurua argitzeko edo erreferentziak zehazteko.

Henriette Binger 1893an jaio zen. Hogei urte zituela, Louis Barthesekin ezkondu zen; ama gazte bihurtu zen hogeita birekin, eta gerrako alargun hogeita hirurekin. Laurogeita lau urterekin hil zen.

Hemen irakurtzen dena ez da autoreak burutu-tako obra bat, baizik eta berak desio izan zuen liburu baten hipotesia, zeinak bere obraren garapenean lagundu baitzuen, eta, hala, hura argitzen baitu.*

N. L.

* Edizio hau bi adiskideren lankidetzari esker finkatu da: Bernard Comment eta Éric Marty.

DOLU-EGUNEROKOA

1977ko urriak 26 – 1978ko ekainak 21

1977ko urriak 26

Lehen eztei-gaua.
Baina, lehen dolu-gaua?

Urriak 27

— Zuk ez duzu ezagutu Emakume gorputzik!

— Ezagutu dut nire amaren gorputza gaixorik,
hiltzorian gero.

Urriak 27

Goizero, 6:30ak aldera, kanpoan, gauean, zaborrontzien burdin-soinua.

Berak esaten zuen, lasaituta: amaitu da gaua azkenik (gaua bakarrik sufritu izandakoa zen, gauza izugarria).

Norbanako bat hiltzen den unetik, etorkizunaren eraikuntza-eldarnioa (altzariak aldatu, etab.): etorkizun-mania.

Urriak 27

Batek jakin? Beharbada urre apur bat ohar haue-
tan?

Urriak 27

—SS: Zutaz arduratuko naiz, baretasun-aldi batekin osa zaitezten.

—RH: Badira sei hilabete deprimituta zaudela, bai baitzenekien. Dolua, depresioa, lana, etab. —Hori, baina modu diskretuan esanda, bere erara.

Sumina. Ez, dolua (depresioa) ez da gaixotasun bat. Zer ote da sendatu behar zaidana? Zer egoera aurkitzeko, zer bizitza? Lanik badago, hortik ernatuko dena ez da izango norbanako *lau* bat, ezpada norbanako *moral* bat, *kemenaren* subjektu bat, eta ez integrazioarena.

Urriak 27

Hilezkortasuna. Ez dut sekula aditu posizio bitxi hori, pirronikoa: ez dakit.

Urriak 27

Mundu guztiak irudikatzen du —sentitu egiten dut— doluaren intentsitate-gradua. Baina ezin da neurtu (zeinu irrigarriak, kontraesankorrek) noraino hartzen duen bat.

Urriak 27

—«Inoiz ez, inoiz ez!»

—Eta, alabaina, kontraesana: «inoiz ez» hori ez da eternala, zerori ere hil egiten baitzara egun batean. «Inoiz ez» hilezkoaren esaldia da.

Urriak 27

Bilkura jendetsuegia. Hutsaltasun gero eta handiagoa, saihestezina. Berarengan pentsatzen dut, alboan daukat eta. Denak kraska.

Hauxe da, hemen, dolu handiaren, dolu luzearen, hasiera solemnea.

Bi egunen ostean, lehen aldiz, neure heriotzaren ideia *onargarri*.

Urriak 28

Amaren gorpua Parisetik Ahurtira daramagu autoz (JLrekin eta gidariarekin): bazkaltzeko geldialdia kantina popular txiki batean, Sorignyn (Toursetik hurbil). Gidariak «lankide» batekin topo egin du (gorpu bat darama Haute-Viennera), eta elkarrekin bazkaltzen dute. Nik osteratxo bat egin dut Jean-Louisekin plaza-
ren inguruan (hilen omenezko monumentu zatarrean), lur nahasia, euriaren usaina, probintzia tamalgarria. Eta, alabaina, bizitzaren plazer bat nola (euriaren usain gozoa tarteko), lehendabiziko desmobilizazioa, pilpira oso labur bat bezala.

Urriak 29

Gauza bitxia: bere ahotsa, hain ondo ezagutzen nuena, zeinari buruz esaten baita oroitzapenaren pikorra dela bere horretan («inflexio kutuna...»), ez dut entzuten. Halako gortasun lokalizatu bat...

Urriak 29

Esaldi honetan, «Berak sufritzeari utzi dio», zertara, norengana, garamatza «bera» horrek? Zer esan nahi du orainaldiak?

Idea bat —harrigarria, baina ez samingarria—: bera ez zela «dena» izan niretzat. Bestela, nik ez nuen *obrarik* idatzi izango. Zaintzen nuenetik, orain dela sei hilabetetik, bera, hain zuzen, «dena» zen niretzat, eta nik erabat ahaztua nuen aurrez idatzitakoa. Berarentzat nintzen zeharo. Lehen, bera garden bilakatzen zen nik idatzi ahal izateko.

Urriak 29

Ohar hauek idatziz, nire baitako *arrunkeriari* ematen natzaio.

Urriak 29

Bere heriotzaren aurretik (bere gaixoaldian) izan nituen desirak jada ezin dira bete, zeren horrek esan nahi bailuke bere heriotzak ahalbidetu didala desira horiek gauzatzea; horrek esan nahi luke bere heriotza, zentzu batean, askatzailea izan litekeela nire desirei dagokienez. Baina bere heriotzak aldatu egin nau, jada ez dut desio lehen desio nuen hura. Zain egon behar da —halakorik gertatuko balitz betiere— desira berri bat osa dadin, bere heriotzaren osteko desira bat.

Urriak 29

Doluaren *neurria*.

(Larousse, Memento): hemezortzi hilabete aita baten, ama baten, dolurako.

Urriak 30

Ahurtin: triste, *leun*, sakon (ernegaziorik gabe).

Urriak 30

... heriotza honek ez banau erabat suntsitzen, horrek esan nahi du, argi eta garbi, bizi nahi dudala galbideraino, erotasuneraino, eta, hala, neure heriotzaren beldurak hor dirauela: ez da hazbete bat ere mugitu.

Urriak 30

Norbanako askok maite nau oraindik, baina hemendik aurrera neure heriotzak ez du inor hilko
—eta horixe da berritasuna.

(Baina Michel?)

Urriak 31

Ez dut gaiaz hitz egin nahi, literatura egiteko beldurragatik —edo ziur jakin gabe ez dela literatura izango—, nahiz eta, berez, halako egietan oinarritzen den literatura.

Urriak 31

Astelehena, 15:00 — Bakarrik itzuli naiz apartamentura lehen aldiz. Nola bizi ahal izango naiz bertan bakar-bakarrik. Eta, aldi berean, ebidentzia bat: ez dagoela nora aldatu.

Urriak 31

Neure zati bat beila egiten ari da etsipenean; eta, *aldi berean*, beste zati bat aztoratuta dabil kontu hutsaletan hutsalenak mentalki antolatzen. Hori *gaixotasun* bat dela iruditzen zait.

Urriak 31

Batzuetan, labur-labur, une zuri bat —sentikortasunik eza bezala—, zeina ez baita ahanztura-une bat. Horrek lazten nau.

Urriak 31

Zorroztasun berria, arraroa, ikustean (kalean)
jendearen itsusia edo ederra.

Azaroak 1

Honek erasaten nau gehien: dolua plakatan — esklerosia bezala.

[Horren esanahia: sakontasunik ez. Azalera-plakak, edo, hobeto esanda, plaka bakoitza: erabateko. Blokeak].

Azaroak 1

Tarteka «entretentua» —hizketan aritzen naiz; beharrezkoa bada, txantxetan— eta lehor bezala —horren ostean braust datoz emozio izugarrikoak, malkoetaraino—.

Zentzuaren esanezintasuna: berdin esan liteke ez naizela sorgorra baizik, kanpo-hunkiberatasun batean artikulatua baizik, femeninoa («azalekoa»), egiazko minaren irudi serioaren kontrakoa — sakonki etsia, aldaketa gauzatzeko borrokan, nire ingurukoak ez goibeltzeko ahaleaginean, baina bat-batean, gehiago eutsi ezinda, «urratu» egiten naiz.

Azaroak 2

Ohar hauen alderdi harrigarria: birrindutako subjektu bat, *buru-argitasunean* harrapatuta.

Azaroak 2

(Gaualdia Marcorekin).

Orain badakit nire dolua *kaotikoa* izango dela.

Azaroak 3

Alde batetik, berak guztia eskatzen dit, dolu guztia, doluaren absolutua (baina orduan ez da bera, ni neu naiz berari hori eskatzea esleitzen diona). Eta, bestetik (orduan bera izanik bene-benetan), gomendatzen dit arintasuna, bizitza, beste behin ere esango balit bezala: «baina zoaz, segi kanpora, egurastu...».

Azaroak 4

Idea bat, sentsazio bat, gaur goizean izandakoa: arintasuna gomendagarria dela dolurako; gaur Éricek esan dit horixe berrirakurri duela Prousten (narratzailearen eta amonaren artean).

Azaroak 4

Bart gauean, lehen aldiz, berarekin amestu: etzanda zegoen, baina ez gaixorik, Uniprixeko lo-jantzi arrosa soinean...

Azaroak 4

Gaur, 17ak aldera, dena antolatuta geratu da gutxi-asko; behin betiko bakardadea bertan da, mate, eta hemendik aurrera ez du izango beste amaierarik, neure heriotza baino.

Korapiloa eztarrian. Urradura aktibatzen zait te-katilu bat prestatzean, gutun-pasarte batekin, objektu bat sailkatzean; irudi luke, gauza ikaragarria, gozatu egingo nukeela apartamentu txukun honetaz, «neurea», baina gozamen hori etsipenari itsasten zaio.

Horrek guztiak definitzen du lan oro *alde batera* uztea.

Azaroak 4

18ak aldera: apartamentua bero dago, leun, argitsu, garbi. Horrela egiten dut, energiaz, debozioz (gozatu egiten dut, *mingostasunez*): gaurdanik eta betiko, neu naiz neure ama.

Azaroak 5

Arratsalde tristea. Erosketak, laburki. Pastelendan (hutsalkeria), *financier* bat erosi dut. Bezero batekin ari dela, neskatxa zerbitzariak dio: *Horra*. Hitz horixe esaten nion amari, hura zaintzen ari nintzeanean, zerbait ekartzen nionean. Behin batean, amaiera aldera, erdizka kontziente zegoela, oihartzun baten moduan errepikatu zuen: *Horra* (*Hemen nago*, elkarri bitzita osoan esan diogun esaldia).

Zerbitzariaren hitzak malkoak eragin dizkit. Negar egin dut luzaro (apartamentu soinurik gabera itzulita).

Horrela bahetu dezaket neure dolua.

Ez dago bakardadean bertan, alderdi enpirikoan, etab.; horretan badut halako erraztasun bat, halako gaitasun bat, eta hori dela-eta jendeak pentsatuko du pena txikiagoa dudala haiek uste izango zuketena baino. Aldiz, maitasun-harremana berriro urratzen den lekuan dago, «elkar maite genuen» horretan. Punturik minena punturik abstraktuenean...

Azaroak 6

Igande goizeko guata. Bakarrik. Lehen igandegoiza bera gabe. Asteko egunen zikloa sentitzen dut. Aurre egiten diot bera gabeko denboren serie luzeari.

Azaroak 6

Gauza asko ulertu ditut (atzo): aztoratzen naue-
naren garrantzirik eza (instalazioa, apartamentuaren
erosotasuna, berriketak, eta batzuetan baita barreak
ere lagunekin, proiektuak, etab.).

Neure dolua maitatzearen harremanari dagokio,
eta ez bizitzaren antolaketa bati. Buruan sortzen zaiz-
kidan (maitasun) hitzen bitartez datorkit...

Banoa tirriki-tarraka doluan barrena.

Behin eta berriro dator, mugiezin, puntu mina: berak agoniaren hatsean esan zizkidan hitzak, murgiltzen nauen minaren etxe abstraktu eta infernuzkoa («R neure, R neure»; «Hemen nago»; «Gaizki eserita zaude»).

—Dolu purua, ez diona ezer zor bizitza-aldaketari, bakardadeari, etab. Maitasun-harremanaren marradura, irekidura.

—Gero eta gauza gutxiago idazteko, esateko; horixe baino ez (baina ezin diot dagokion pertsonari esan).

Azaroak 10

«Kuraia» opa dugu. Baina kuraiaren denbora gaitxoaldiari zegokion, non zaindu egiten bainuen ikusten nuelarik bere sufrimendua, bere tristurak, eta non ezkutatu egin behar izaten bainuen negar egiteko. Une oro erabakiak hartu beharra, jarrera bat hartu beharra, eta horixe da kuraia. —Orain, *kuraiak* esan nahi luke *bizi nahia*, eta hori jada badugu gehiegi.

Azaroak 10

Absentziaren izaera *abstraktuak* erasaten dit; alabaina, gorria da, erdiragarria. Hala, hobeto ulertzen dut *abstrakzioa*: minaren absentzia da, absentziaren mina; beraz, beharbada, maitasuna?

Azaroak 10

Gogaituta eta ia-ia erruduntasun-sentipenez, batzuetan iruditzen baitzait hunkiberatasunera murizten dela neure dolua.

Baina bizitza osoan ez al naiz horrela egon: hunkituta?

Azaroak 11

Bakardadea = norbere etxean ez edukitzea inor zeinari esan ahal diozun: halako ordutan etxeratuko naiz; edo zeinari telefonoz deitu ahal diozun (eta esan): hara, etxeratu naiz.

Azaroak 11

Egun ikaragarria. Gero eta zorigaitokoago.
Negarrez.

Azaroak 12

Gaur —nire urtemugaren eguna— gaixo nago,
eta ezin dut, ezin diot jada berari esan.

Azaroak 12

[Ergela] Souzay* kantuz entzunez: «Bihotzean dut tristura bat izugarria», negar-malkotan hasten naiz.

zeinaren lepotik barre egiten bainuen behiala

* Ikus «L'art vocal bourgeois», *Mythologies*, Paris, Seuil, 1957; 189-191 or. (Ohar guztiak Nathalie Léger editorearenak dira).

Azaroak 14

Neure samina azaltze aldera Amaren Estatutua ekartzeari uko egiten diot, zentzu batean.

Azaroak 14

Gozoa da (gutunen bidez) ikustea nola jende ugari (jende urruna) ondo atzeman zion bere izaerari, geure izaerari, «RB»-n* agertzen zuen presentzia-modua dela-eta. Beraz, arrakasta izan nuen horretan, eta orain ondasun gisa datorkit.

* *Roland Barthes par Roland Barthes*, Paris, Seuil, 1975.

Azaroak 15

Badago garai bat non heriotza *gertakizun* bat den, abentura bat, eta, hala izanik, mugiarazten du, interesa pizten, eskaintzen, aktibatzen, tetanizatzen. Eta gero, halako batean, jada ez da gertakizun bat; beste iraupen bat da, pilatua, hutsala, ez kontatua, hitsa, baliabiderik gabea: egiazko dolua, inongo narratiba dialektikori ez dagokiona.

Azaroak 15

Noiz erdiratua, noiz deseroso; hala nago
eta noizbehinka bizi-ahokadak

Azaroak 16

Orain, nonahi, kalean, kafetegian, norbanako oro ikusten dut ezbairik gabe *hil-behar-duenaren* espezieko gisa; hau da, hilkor gisa zehatz-mehatz. Eta hori bezain nabarmen ikusten ditut *halakorik ez dakitenak* gisa.

Azaroak 16

Tarteka, desira-ahokadak (adibidez, Tunisiako bidaia), baina *lehengo* desirak dira, anakronikoak nolabait; *beste ur-bazter batetik* datoz, beste herrialde batetik, iraganaren herrialdetik. Gaurkoa, berriz, herrialde lau bat da, hitza —apenas duen ur-iturririk— eta irrigarria.

Azaroak 17

(Samin-krisia)
(zeren V.-k idatzi baitit ama ikusi duela berriro
Rueilen, *grisez jantzita*).

Dolua: eskualde ikaragarrikoa, non *jada ez du-
dan beldurrik*.

Azaroak 18

Ez dolua *adieraztea* (edo, behinik behin, *dolua*-*rekiko ezaxola agertzea*), baizik eta *ezartzea* *doluak* dakarren maitatze-harremanaren gaineko eskubide *publikoa*.

Azaroak 19

[Betebeharren nahasketa]. Hainbat hilabetez, bere ama izan nintzen. Neure alaba galdu banu bezala da (hori baino min handiagorik? Ez nuen sekula pentsatu horretan).

Azaroak 19

Ikaraz ohartzea nola posible den, besterik gabe,
une bat iristea non, berak niri esandako hitzez oroitu,
eta jada ez dudan negarrik egingo...

Azaroak 19

Parisetik Tunisiara bidaia. Hegazkin-matxuren sorta bat. Egonaldi amaiezinak aireportuetan, inguruan tunisiarrak saldoka: jaioterrira itzultzekoak baitziren Aïd Kebir ospatzera. Matxura-egun arraro hau zergatik egokitzen da hain ondo doluarekin?

Azaroak 21

Etsipena, desjabetzea, apatia: bakarrik; boladaka, idazketaren irudia, «gogoa pizten duen gauza gisa»: babesleku, «salbamendu», proiektu; labur esanda, «maitasun», poz. Pentsatzen dut egiazko fededunak antzeko mugimenduak garatzen dituela bere «Jainkoarekiko».

Azaroak 21

Desitxuraketa mingarri hau beti (bai baita misteriotsua, ulertezina): batetik, zer-nolako erraztasuna dudan lehen bezala hitz egiteko, interesa agertzeko, behatzeko, bizitzeko; bestetik, saminaren sastadak. Sufrimendu erantsia, «hankazgorago» ez egoteagatik. Baina, orduan, beharbada, aurreiritzi bat da sufritzen dudana.

Azaroak 21

Amaren heriotzaz geroztik, halako digestio-
hauskortasun bat; berak gehien zaintzen ninduen
puntu horretan zaurituta banengo bezala: elikaduran
(nahiz eta azken hilabete luzetan janaria ez zuen berak
prestatzen).

Azaroak 21

Orain badakit nondik irits daitekeen Depresioa: udako egunerokoa berrirakurri ahala,^{*} aldi berean sentitzen naiz «xarmatuta» (katigatuta) eta dezepzioak jota: idazketa, horrenbestez, irrigarria baino ez da, gehienez ere. Depresioa iritsiko da noiz eta, sufrimenduaren barrunbetik, idazketari ere heltzeko gai izango ez naizenean.

* Roland Barthesek 1977ko udako bere egunerokoaren orrialde batzuk argitaratu zituen «Délibration»-en; *Tel Quel*, 82. zbk., 1979ko negua.

Azaroak 21
Iluntzea

«Aspertu egiten naiz bazter guztietan».

Azaroak 23

Gaualdi estrainioa Gabèsen (haizea, hodei beltzak, bungalow negargarriak, ikuskizun folklorikoa Chems hoteleko tabernan): jada ezin dut pentsamenduaren bidez aterpe hartu inon; ez Parisen, ez bidaiari. Jada ez dut aterperik.

Azaroak 24

Neure harridura —eta, nolabait esan, neure ar-
tegitasuna (neure ondoeza)— honek dakar: egia esan,
ez da gabezia bat (ezingo nuke hau deskribatu gabe-
zia gisa, nire bizitza ez da hankaz gora jarri), baizik eta
zauri bat, maitasunaren bihotzean mina ematen duen
zerbait.

1977ko azaroak 25

espontaneotasun +

Zeri esaten diodan *espontaneotasuna*: soilik *muturreko* egoera horri non, adibidez, amak, bere kontzientzia ahulduaren barrunbeetatik, bere sufri-menduan pentsatu gabe, esan baitzidan «Zu ez zaude ondo, gaizki eserita zaude» (haizea ematen ari nintzaiolako taburete batean eserita).

Azaroak 26

Zeharo ikaratzen nau doluaren izaera *aldikakoak*.

Azaroak 28

Nori egin ahal nioke galdera hau (erantzunen bat jasotzeko itxaropenez)?

Maite genuen norbaiten faltan bizi ahal izateak zera esan nahi al du: uste baino gutxiago maite genuela hura...?

Azaroak 28

Hotza, gaua, negua. Epeletan nago, eta hala ere bakarrik. Eta ulertzen dut ohitu *beharko* dudala, noski, bakardade honetan egotera, horretan ekitera, horretan lan egitera, lagun dudala, itsatsita daukadala, «absentziaren presentzia».

Ikus —*Neutre*-ri buruzko oharrak berriro hartu.*
Oszilazioa (*Neutroa* eta *Oraina*).

* Roland Barthesen lan-artxibo handiko sarrera bati buruz ari da, hain zuzen «*Le Neutre*» mintegia (Collège de France, 1978ko otsailak 18 - ekainak 3) prestatzeko baliatu zuena. Ikus Roland Barthes, *Le Neutre*, Paris, Seuil/IMEC, «*Traces écrites*»; Thomas Clerk-ek finkatu, oharrak jarri eta aurkeztutako testua, 2002. Batez ere honako figura hauek aipatuko dira: «*L'actif du Neutre*» (116. or.) eta «*L'Oscillation*» (170. or.).

→ «Dolua»

ACri azaldurik, bakarrizketa batean, nola den neure mina kaotikoa, nola dabilen alderrai, eta horrek nola kontra egiten dion ohiko ideia bati —ideia psikoanalitikoa bestalde—, hots, denboraren mendeko dolu baten ideari, non dolua dialektizatu egiten baita, agortu, «konpondu». Minak ez du ezer eraman berehalakoan; baina, behinik behin, ez da agortzen.

—ACren erantzuna: horixe da dolua. (Eta, hala, Jakintzaren subjektu gisa ezartzen da, Murrizketaren subjektu gisa). —Sufritu egiten dut. Ezin dut jasan inork murrizterik —inork orokortzerik—. Kierkegaard.*
Neure samina: hura lapurtuko *balidate* bezala da.

* «Hitz egiten dudan unetik, orokortasuna adierazten dut, eta, isiltzen baldin banaiz, ezin nau inork ulertu». Soren Kierkegaard, *Crainte et Tremblement* [Ikara eta dardara]. itzultzailea: P.H. Tisseau; hitzaurrea: Jean Wahl; Aubier Montaigne, «Philosophie de l'esprit», 93. or. Roland Barthesek maiz aipatzen zuen testu hori.

→ «Dolua»

[ACri azalduta]

Dolua: ez da agortzen, ez dago lukurreriaren mende, denboraren mende. Kaotikoa, alderraia: *uneak* (saminezkoak/bizitzarekiko maitasunezkoak), lehen egunean bezain *fresko* gaur.

Subjektua (neu naizena) ez da oraina baizik, ez dago orainean baizik. Hori guztia ≠ psikoanalisia; hemeretzigarren mendekoa: Denboraren filosofia, desplazamenduarena, Denbora bidezko aldaketa (sendaketa); organizismoa.

cf. Cage.*

* «Oraina» funtsezko elementua da John Cage konpositore estatubatuarren ikerketan. Ikus, batez ere, gai horren inguruan John Cagek Daniel Charles-ekin izandako elkarrizketak, liburu honetan: *Pour les oiseaux* [Hegaztientzat], Belfond, 1976, zeina Roland Barthesen liburutegian baitzegoen.

Azaroak 30

Ez esan *Dolua*. Psikoanalitikoegia da. Ni ez nago *doluan*. Samina dut.

Vita nova,* keinu erradikal gisa (etetea — iragan-
nean berez aurrera egiten zuena eteteke premia).

Bi bide kontraesankor daude aukeran:

- 1) Askatasuna, Iraupena, Egia
(nintzen horretara itzultzea)
- 2) Jasankorkeria, Karitatea
(nintzen hori azpimarratzea)

* *Vita nova* bat izateko desirak, maitatutako pertsonaren doluak eraginda bizitza guztiz berri bat izatekoak, zerikusia du Danteren ibilbidearekin, zeinak *Vita Nova*-ren bidez forma narratibo eta poetiko berri bat asmatu baitzuen amodioa eta dolua esateko. 1979ko udan, *Vita Nova* izenburupean, Roland Barthesen proiektu bat antolatu zuen, non bere ama baitzen protagonista funtsezkoetako bat. Cf. *Oeuvres complètes*, V bolumena, 1007-1018 or.

Azaroak 30

Samin «une» bakoitzean, iruditzen zait orduantxe ari naizela lehendabiziko aldiz neure doluaz jabetzen.

Horrek esan nahi du: intentsitate erabatekoa.

Abenduak 3

[Emilio gaualdia FM Barnierrekin]

Apurka-apurka, elkarrizketa desertatzen dut (besteek mespretxuagatik zapuztu naizela pentsa dezaketelakoan sufritud). FMB (eta, aldizka, Youssef) sistema tinko bat da (gainontzean talentuduna): baliolen-sistema bat, kodeena, sedukzioena, estiloena; baina sistema horren *sendotasunaren* proportzioan, baztertua sentitzen naiz. Hala, pixkana-pixkana, borrokatzeari uzten diot, joan egiten naiz, neure irudiaz kezkatu gabe. Hori, bada. Kontu mundutarrekiko desafekzio batetik hasten da, lehenik arina, ondoren erradikala. Progresio horri, pixkanaka, neuretzat bizirik dagoen horrenganako nostalgia nahasten zaio: amarena. Eta, azkenik, saminezko zulo batean erortzen naiz.

Abenduak 5

[JL galtzen ari naizelako sentrazioa — urrun-
tzen ari delakoa] Bera galduko banu, gupidarik gabe
berbidalia izango nintzateke, gupidagabe murriztua,
Heriotzaren eremura.

Abenduak 7

Orain, nigan hazten da tarteka, ezustean, leher-
tu egiten den globoa nola, baieztapen hau: *bera ez dago*,
bera ez dago, ez dago betiko eta erabat. Matea da, adjek-
tiborik gabea: zorabiagarria da, *ezdeusa* delako (ez du
interpretazio posiblerik).

Min berria.

Abenduak 7

Heriotzaren hitzak (arruntak):

—«Ezinezkoa da!»

—«Zergatik, zergatik?».

—«Betiko».

etab.

Abenduak 8

Dolua: ez da zanpaketa, ez da blokeoa (horrek berekin ekarriko bailuke lehen bazela «betetasun» bat), ezpada prestutasun min bat: *erne* nago, zain, «bizitzaren zentzu» baten etorreraren zelatan.

Abenduak 9

Dolua: ondoeza, *balizko xantaiarik gabeko* egoera.

Abenduak 11

Igande goiz isil honen bihotz zeharo beltzean:

Orain, pixkana-pixkana hazten da nire barruan
gai serioa (desesperatua): hemendik aurrera zer zentzu
nire bizitzak?

1977ko abenduak 27

Ahurti

Malko-krisi bortitza

(gurinaren eta gurin-ontziaren kontu bat dela-eta, Rachel eta Michelekin). 1) Beste «familia» batekin bizi behar izatearen mina. Hemen, A.-n, guztiak narama *beraren* familiara, *beraren* etxera. 2) Bikote orok (ezkonbikoteek) bloke bat osatzen du, non bakarrik dagoena kanpoan geratzen baita.

1977ko abenduak 29

Nire dolua *deskribaezina* da ez dudalako histerizatzen: ondoez jarraitua, guztiz berezia.

1978ko urtarrilak 1

Ahurtin, samin bizia eta jarraitua; etengabe larruturik. Doluak okerrera egiten du, sakonera. Hasi-
sieran, gauza bitxia, banuen halako interes bat egoera
berria (bakardadea) esploratzeko.

Urtarrilak 8

Mundu guztia da «oso jatorra». Alabaina, bakarrik sentitzen naiz. («Abandonotasuna»).

1978ko urtarrilak 16

Ohar gutxiago —aitzitik: nahigabea— ondoez etengabea, nahigabeek moztua (gaur: nahigabea. Ondoeza ez da idazten).

Denak larrutzen nau. Ezerez bat eragiten du nigan abandonuak.

Ez ditut besteak jasaten, besteen bizi-nahia, besteen unibertsoa. Besteengandik urrun gordetzeko erabakiak erakarririk [jada ez dut jasaten Y unibertsoa].

1978ko urtarrilak 16

Neure unibertsoa: mate. Ezerk ez du benetako oihartzunik egiten bertan, ezer da ez bertan kristalizatzen.

1978ko urtarrilak 17

Bart gauean, amesgaiztoak: ama ondoezen
gatibu.

1978ko urtarrilak 18

Halabeharra da aldi berean erdiratzen nauena eta eusten didana (sufrimenduari xantaia egiteko aukera historiko bakar bat ere ez, jada dena jokatu baita).

1978ko urtarrilak 22

Bakardade-gogorik ez, bakardade-premia dut nik.

1978ko otsailak 12

Sentimendu zaila (desatsegina, etsigarria): eskuzabaltasun-gabezia. Sufriarazten dit.

Ezin dut hori uztartu amaren irudiarekin, hain bikainki eskuzabala bera (esaten baitzidan: ona zara).

Pentsatzen nuen, bera desagerturik, desagertzen hori sublimatuko nuela halako «ontasun» baten perfekzioaren bidez, bazter utziz zitalkeria oro, jelsia oro, nartzisismo oro. Eta, aldiz, hara non bihurtzen naizen gero eta gutxiago «noblea», gero eta gutxiago «eskuzabala».

1978ko otsailak 12

Elurra, elurra mara-mara Paris gainean; bitxia da.

Neure buruari hau esan, eta sufritu egiten dut:
bera jada ez da inoiz hemen egongo elurra ikusteko,
nik berari elurra kontatzeko.

1978ko otsailak 16

Gaur goizean, elurra oraindik, eta, Irratian, liedak. Halako tristurarik! Gogoan ditut goiz haiek zeinetan, gaixo egonik, ez nintzen eskolara joaten, eta berarekin geratzeko zortea bainuen.

1978ko otsailak 18

Dolua: ikasi dut aldagaitza eta noizbehinkakoa dela; ez da agortzen, ez delako jarraitua.

Etenaldien, beste zerbaiteranzko jauzi burtzoroen jatorria aztoramen mundutarra denean, desegokikeriaren bat denean, depresioa areagotu egingen da. Aldiz, «aldaketa» horiek (noizbehinkatasuna sortzen dutenak) isiltasunerantz doazenean, barneko-tasunerantz, pentsamendu goragoko batera pasatzen da doluaren zauria. *Arrunkeria* (asaldurari dagokiona) ≠ *Noblezia* (Bakardadearena).

1978ko otsailak 18

Pentsatzen nuen amaren heriotzak pertsona «sendo» bihurtuko ninduela, sarbidea izango nuelako zera mundutarren axolagabeziara. Baina guztiz kontrakoa gertatu da: oraindik eta hauskorragoa naiz (normala: abandonu-egoeran dagoen ezerez bat izanik).

1978ko otsailak 21

[Bronkitisa. Lehendabiziko gaixoaldia amaren heriotzatik.]

Gaur goizean, amarengan pentsatuz denbora guztian. Tristura higuigarria. Halabeharraren higuina.

1978ko martxoak 2

Amaren heriotza jasanarazten didan gauza: askatasunaren gozamen halako baten antzeko zerbait.

1978ko martxoak 6

Nire berokia hain da tristea, iruditzen baitzait beti jartzen dudan lepoko beltz edo grisa amari jasanezina irudituko litzaiokeela, eta bere ahotsa aditzen dut: kolore apur bat sartzeko diost.

Lehen aldiz, beraz, koloretako lepoko bat jarri dut (eskoziarra).

1978ko martxoak 19

M. eta biok sentitzen dugu ezen, kontu paradokikoak (zeren, normalean, esaten baitizute: lan egin, entretenitu, ikusi mundua), asaldatuta gaudenean, lanpetuta, bilatzen gaituztenean, *kanporantz* dihardugunean, orduantxe daukagula saminik handiena. Barnekotasunean, soseguan, bakardadean, ez da hain mingarria.

1978ko martxoak 20

Esan zait (Panzera andreak' esan dit): Denborak
doluaren apaltzen du. Ez, Denborak ez du ezer apaltzen,
doluaren *hunkiberatasuna* soilik.

* Ziur aski Charles Panzeraren emazteaz ari da. C. Panzera 1976ko
ekainaren 6an hil zen, 80 urte zituela; Roland Barthesi eta haren ikaskide
Michel Delacroixi kantu-eskolak emanak zizkien 1940ko hamarraldiaren
hasiera-hasieran.

1978ko martxoak 22

Saminak, doluak, hartzen duenean bere bidaldi-
erregimena...

1978ko martxoak 22

Hunkidura (hunkiberatasuna) badoa; saminak irauten du.

1978ko martxoak 23

Bi hauen arteko bereizketa (izugarria) ikastea:
hunkiberatasuna (baretzen da) eta dolua, samina (*hor
dirau*).

1978ko martxoak 23

Presa dut (behin eta berriro egiaztatua duela hainbat astetatik) askatasuna berreskuratzeko (atzera-penez libratu-rik), berriro ekiteko Argazkiaren liburuari, hots, neure samina txertatzeko idazketa batean.

Sinesmena eta, dirudienez, egiaztatpena: idazketak, nigan, afektuaren «estasiak» eraldatzen dituela, «krisiak» dialektizatzen.

—Catch borroka: jada idatzia, gehiago ikusteko beharrik ez

—Japonia: idem

—Olivierren krisia: *Sur Racine*

—RHren krisia: *Discours Amoureux*

[—Beharbada Neutre → Gatazkarekiko beldurra-
ren eraldaketa?]*

* «Le Neutre» mintegiaren muina laburtuz, Roland Barthesek zera zehaztuko du aste batzuk geroago: «[...] Neuroaren ezaugarri esanguratsutzat zera jo dugu: zentzuaren egitura paradigmaticoari, oposizionalari ihes egiten dion edo zapuzten duen inflexio oro zeinak, ondorioz, helburu duen diskurtsoaren konflikto-funtsak eteten dituen», *Le Neutre*, *op. cit.*, 261. or. 1978ko maiatzaren 6ko saioan, hau idatzi zuen; kontu aipagarria: konfliktuzkoari ihes egiteko moduak, hura «saihestekoak» (neurri batean horixe da mintegia), (167. or). Catchari dagokionez, ikus *Mythologies*, Paris, Seuil, 1957; Japoniari dagokionez, *L'Empire des signes*, Paris, Skira, 1971; *Sur Racine*, Paris, Seuil, 1963; *Fragments d'un discours amoureux*, Paris, Seuil, 1977.

1978ko martxoak 24

Samina, harria nola...
(nire lepoan,
nire barrunbeetan)

Martxoak 25

Atzo, Damischi azaldu nion hunkiberatasuna iragan egiten dela, baina saminak iraun egiten duela. Erantzun zidan: Ez, hunkiberatasuna itzultzen da; ikusiko duzu.

Bart gauean, amesgaiztoa, ama galduari buruz. Zirrarak jota nago, negar egiteko zorian.

1978ko apirilak 1

Izan ere, azken finean, beti hauxe: egongo banintz bezala hilda bezala.

1978ko apirilak 2

Zer daukat orain galtzeko, galdu dudalarik neure bizitzaren Arrazoia — norbaitengatik beldurra izateko Arrazoia.

1978 apirilak 3

«Amaren heriotzogatik sufritzen ari naiz».
(Gutunera iristeko bidean).

Apirilak 3

Desesperazioa: teatralegia da hitza, lengoiaren parte da.

Harri bat.

1978ko apirilak 10

Ahurti. Wylerren film bat, *The Little Foxes*, Bette Davisekin.

—Alabak, une batean, «arroz-hautsa» aipatzen du.

—Hurtzaro osoa datorkit gogora. Ama. Arroz-hautsaren potoa. Hortxe dago dena, presente. *Hortxe nago ni.*

Nia ez da zahartzen.

(Arroz-hautsaren garaian bezain «fresko» nago).

1978ko apirilaren 12aren inguruan

Idaztea, oroitzeko? Ez ni *neu* oroitzeko, ezpada ahanzturaren urradurari kontra egiteko, *erabateko iragartzen den heinean*. «Arrastorik ez» —laster—, inon, inorengan.

«Monumentu» beharra.
*Memento illam vixisse.**

* Gogoan izan ezazu hura bizi izan dela.

1978ko apirilak 18
Marrakex

Ama ez dagoenetik, jada ez dut sentitzen lehen bidaietan izaten nuen askatasun-irudipena (berarengandik denbora-tarte labur batez urruntzen nintzenean).

Dolua

Gardet
Mistikoa, 24*

[Kordoka, *Fadingak*, Behin Betikoaren hegalarren
pasaera]

(India)

= «apofasia erradikal baten baieztapen bikaina,
bizitako *ezjakintasun* intelektualaren bidez.

—Doluaren *Fadingak* = *Satoriak*. (i. 42. or.)

«fluktuazio mental oroz husturik»

(«subjektu-objektu bereizketa oro hautsi»)

* Louis Gardet, *La Mystique*, Paris, PUF, 1970.

Casa, 1978ko apirilak 21*

Dolua

Amaren heriotzari buruzko pentsamendua: kordoka bortitz eta iheskorak, *fading* oso laburrak, hunkitze-aldiak eta halere hutsak bezala, zeinaren funtsa baita: Behin Betikoaren ziurtasuna.

* Marokora egindako bidaia horretan bizi izan zuen Roland Barthesek, apirilaren 15ean, «Narratzaile proustarrak *Temps retrouvé*-ren amaieran ezagutzen duen iluminazioaren» pareko liluramendua. Iluminazio horixe da *Vita Nova* proiektuaren (cf. 8. oharra, 75. or.) eta *La Préparation du Roman* (Paris, Seuil/IMEC, 2003, 32. or.) mintegiaren ernamuina.

Dolua

Casa
1978ko apirilak 27
Pariserako itzuleraren
Goiza

—Hemen, hamabost egunez, etengabe pentsatu dut amaz, eta bere heriotzak sufriarazi dit.

—Dударik gabe, etxea dago oraindik: bera artean bizi zela neurea zen sistema.

—Hemen, urrun, sistema horrek lurra jotzen du. Ondorioz, kontu paradoxikoa, askoz gehiago sufritzen dut «kanpoan» nagoen bitartean, «berarengandik» urrun, plazerean (?), «entretanimenduan». Munduak esaten didanean «Ahazteko behar duzun guztia daukazu hemen», orduan eta gutxiago dut ahazten.

Dolua

Casa
1978ko apirilak 27

—Amaren heriotzaren ostean, nire ustez: halako askapen bat ontasunean, berak bizirik dirau, are eta indar handiagoz, eredu gisa (Figura), eta neu, «beldurretik» askaturik (mendekotasunaren beldurra), zeina baita hainbeste zitalkeriaren iturburua (izan ere, hemendik aurrera, ez al naiz axolagabea ororen aurrean? Axolagabezia (norberari dagokionez) ez al da ontasunmota baten baldintza?).

—Baina hara non kontrakoa gertatzen den. Ez da bakarrik ez dudala albo batera uzten neure ezein egoismo, neure ezein atxikimendu txiki; aitzitik, jarraitzen dut, etengabe, «neure burua nahiago izaten», eta, are gehiago, ez natzaio ezein norbanakori amoroski ematen; denak zaizkit apur bat bost axola, baita kutunenak ere. Sentitzen dut —eta gogorra da— «bihotzaren lehortea», utzikeria.

1978ko maiatzak 1

Pentsatzea, jakitea, ama hilik dagoela *betiko*, *zeharo* («zeharo» hori ezin da pentsatu bortizkeriaren bitartez ez bada, eta pentsamendu horri luzaroan eutsi ezin zaiolarik), orobat da pentsatzea, letraz letra (literalki, eta aldi berean), ni neu ere hilko naizela *betiko eta zeharo*.

Badago, beraz, doluaren baitan (neurea moduko dolu batean), heriotzaren etxekotze erradikal eta *berri* bat; zeren, lehen, jakintza hori *mailegatutakoa* baitzen (dorpea, besteengandik jaso, filosofiatik etab.), baina orain *neure* jakintza da. Ezin dit eragin *neure* doluak baino min handiagorik, *apenas*.

* Idazkera, hemen, ez da oso argia: «autres» [besteak] ez ezik, «arts» [arteak] ere izan liteke.

1978ko maiatzak 6

Gaur —aldarte txarrean nengoela jadanik—, arratsaldearen amaiera aldera, tristura izugarrikoa une batean. Haendelen baxu-aria eder-eder batek (*Semele*, 3. ekitaldia) negar eginarazi dit. Amaren hitzak gogoan («R neure, R neure»).

1978ko maiatzak 8

(Azkenean ere idaztea lortuko dudan egunari begira)

Azkenean! Banatua idazketa honetatik zeinean jartzen bainuen neure arnasa bera, neure saminak *haus-poa hartzea berriz*, mila eta bat ezuste gogaikarriengatik, azkenean —

(banatua neure saminetik besteengatik, banatua haiengatik «Filosofatzetik»)

Besoak luzatzen nituen ez irudirantz, baizik eta irudi hau [honen] filosofatzerantz.*

* Roland Barthesek, azkenean, «de» preposizioa marratu zuen esaldi honetatik [jatorrizkoa: *Je tendais les bras non vers l'image, mais vers le philosophe [de] cette image*]. Guk kortxete artean adierazi dugu, autoreak hurrenez hurren gogoan hartu zituen bi zentzuak irakurleari eskaini asmoz.

1978ko maiatzak 10

Hainbat gauz segidan, irudiak — amesgaiztoak:
ama ikusten dut gaixorik, kolpaturik. Izua.

Gertatu den horren beldurra pairatzen dut.

Cf. Winnicott: *jada gertatu den* suntsiketa baten
beldurra.*

* Cf. Donald Woods Winnicott, "La craint de l'effondrement", *Nouvelle revue française de psychanalyse*, 11. zbk., Gallimard, 1975eko udaberria.

1978ko maiatzak 10

Amaren heriotzak dakarkidan bakardadean, amarekin lotuta ez dauden arloetan geratzen naiz bakarrik: neure lanari dagozkionetan. Ezin ditut irakurri arlo horiekin zerikusia duten erasoak (zauriak), tamal handiz sentitu gabe lehen baino bakarrago nagoela, lehen baino abandonatuago: Baliabidearen suntsiketa; nahiz eta, aurrez, eskura zegoenean, ez nuen inoiz hartara jotzen zuzenean.

Doluaren, Abandonuaren, metonimia osoa (izua).

1978ko maiatzak 12

[Dolua]

Zabuka nabil —iluntasunean— hauen artean: batetik, baieztapen bat (baina hain justu ere: bidezkoa?), tarteka baizik ez naizela zorigaiztokoa, kolpeka, aldika, nahiz eta espasmo horiek elkarrengandik hurbil gertatu; bestetik, konbentzimendu bat: *sakonean, izan ere, etengabe* naizela, denbora guztian, zorigaiztoko, amaren heriotzaz geroztik.

1978ko maiatzak 17

Atzo gauean, film ergel eta zabarra, *One Two Two*. Staviski auziaren sasoian kokatzen da: neronek bizi izan nuen garai hura. Oro har, ez dit ezer gogorazi. Baina, bat-batean, dekorazioaren xehetasun batek zirrara eragiten dit: pantaila plisatua duen lanpara bat, sokatxoa zintzilik. Amak halakoak egiten zituen, bati-ka egiten baitzuen. Bera osorik datorkit, jauzi batean, aurpegira.

1978ko maiatzak 18

Amodioak bezala, doluak ere mundua eta mundutartasuna astintzen ditu irrealtasunez, ezustez. Kontra egiten diot munduari, pairatu egiten dut munduak eskatzen didana, eskaera bera. Munduak areagotu egiten du neure tristura, neure lehortea, neure urradura, neure ernegazioa, etab. Munduak deprimitu egiten nau.

1978ko maiatzak 18

(atzo)

Flore kafetegitik, emakume bat ikusten dut Huneko leihoaren ertzean eserita; edalontzi bat du eskuan, eta aspertuta dagoela dirudi; gizonak bizkarrez, lehen solairua bete-beteta dago. Koktel bat.

Maiatzeko koktelak. Estereotipo sozial eta sa-soikakoaren sentipen tristea, deprimigarria. Zorrotza. Pentsatzen dut: ama jada ez dago, eta bizitzak, ergel, aurrera darraio.

1978ko maiatzak 18

Amaren heriotza: beharbada horixe da neure bizitzan neurotikoki hartu ez dudan *gauza bakarra*. Neure dolua ez da izan historikoa, ezpada besteek ozta nabaritzeko modukoa (dolua «teatralizatzearen» ideia jasanezina egingo litzaidakeelako, beharbada); eta, dudarik gabe, historikoago jardun izan banu, neure depresioa haizatuz, mundu guztia bidaliz, jendartean ibiltzeari utziz, ez nintzatekeen horren zorigaiztokoa izango. Eta ikusten dut neurosirik eza ez dela ona, ez dagoela ondo.

1978ko maiatzak 25

Ama bizi zela (hots, nire aurreko bizitza osoan),
neurosia nuen, bera galtzeko beldurrez.

Orain (eta horixe irakatsi dit doluak), dolu hau
da, nolabait esan, neurotikoa ez den neure gune baka-
rra: badirudi amak, azken dohain gisa, nigandik urrun
eraman duela zati txarra, neurosia.

1978ko maiatzak 28

Doluaren egia sinplea da guztiz: orain, ama hilik delarik, heriotzara behartuta nago (denborak baino ez nau banatzen harengandik).

1978ko maiatzak 31

Zertan dagoen ama presente idatzi dudan orotan; bada, honako honetan: nonahi ageri da Ongi Goren baten ideia.

(ikus JL eta Éric M.-k niri buruz *Encyclopaedia Universalis*-en argitaratu zuten artikulua).*

* *Encyclopaedia Universalis*-en 1978. urteko gehigarrian «Roland Barthes» izenburuarekin argitaratu zen sarrerari buruz ari da.

1978ko maiatzak 31

Ez daukat bakardadearen beharrik; anonimotasuna behar dut (lana).

«Lana», zentzu analitikoan (Doluaren Lana, Ametsarena), «Lan» erreal bilakatzen dut: idazketa-lan.

Zeren eta:

krisi handietatik (maitasuna, dolua) irteteko babilio (omen) digun «Lana» ez baita presaka kitatu behar; niretzat, idazketan eta idazketaren bidez baino ez da konplitzen.

1978ko ekainak 5

Subjektu bakoitza (hori agertzen da gero eta gehiago) jarduten da (buru-belarri) «aitortza» jasotzeko.

Nik neuk, bizitzako puntu honetara iritsita (non ama hilda dagoen), «aitortza» jaso izan dut (liburuengatik). Baina, gauza bitxia —beharbada okerra?—, badut irudipen ilun bat: bera ez dagoelarik, berriro ere bilatu beharko dudala . Eta ezin du izan beste liburu bat idatziz: *jarraitzearen* ideia, iraganean bezala liburuz liburu eta ikasturtez ikasturte aritzearena, hilduragarria egin zitzaidan berehala (ikusten nuen horretan arituko nintzela *neu hil arte*).

(Hortik datoz gaur egun egiten nabilen dimisio-saiakerak)

Jakitin eta estoiko berrekin aurretik obraren ibilbideari (aurreikusi gabeko zerbait, bestalde), ezinbestekoa zait (ondotxo dakit) amari buruzko liburu hau egitea.

Zentzu batean, orobat, badirudi *amak aitortza* jasotzeko beharra dudala. Horixe da «monumentuaren» muina, baina:

Niretzat, Monumentua ez da zera *iraunkor* bat, eternala (nire doktrina, sakon-sakonean, hau da: *Guztia iragaten da*; hilobiak ere hiltzen dira); aldiz, ekintza bat da, aitortza *eragiten* duen *aktibo* bat.

(Ekainak 7. «Dernière années de Cézanne»,
ACrekin)

Ama: Cézanneren zeozer bezala (amaierako
akuarelak).

Cézanneren urdina.

* «Cézanne, les dernières années» erakusketa Pariseko Palazio Handian
egin zen 1978ko apirilaren 20tik uztailaren 23ra.

1978ko ekainak 9

Amodioarengatik, FW txikituta dago, sufritzen ari da; etzanda datza, behartuta, ez dago ezertan, etab. Alabaina, ez du inor galdu; maite duen gizabanakoa bizi da, etab. Eta ni, berriz, bere ondoan nagoela, entzun egiten diodala, ni patxadaz ageri naiz, arretatsu, presente nago, gauza askoz larriago bat gertatu ez balitzait bezala.

1978ko ekainak 9

Gaur goizean, Saint-Sulpice eliza zeharkatu, zeinaren zabaltasun arkitektoniko hutsak liluratu egiten bainau: arkitekturaren barruan egotea. Segundo bat eseri naiz; halako «otoitz» senezko bat: *Argazki-Ama* liburua burutzea. Eta gero ohartu naiz beti nabilela erreguan, beti nahi dudala zerbait, beti bultzatzen nauela aurrerantz Haur desirak. Egun batean, leku berean esertzea, begiak itxi, eta ezer ez erregutzea... Nietzsche: ez errezatzea, baizik bedeinkatzea.

Doluak ez al luke horixe ekarri behar?

1978ko ekainak 9

(Dolua)
Ez Jarraitua, ezpada Mugiezina.

1978ko ekainak 9

Beharrezkoa da (gogoia dut honetarako) halako *armonia* bat sortzea gizabanako maitea izan den horren eta hura hil ostean agertzen denaren artean: ama Ahurtin lurperatua, bere hilobia, bere gauzak Avre kalean.*

* Paris, XV. barrutia: bertan, artzain protestante bat bizi zen, Barthes familiaren laguna, eta hari eman zitzaizkion Henriette Barthesen «gauzak», bere elizako jardueretarako.

1978ko ekainak 11

Arratsaldean, Michelekin, amaren gauzak sailkatu.

Goizean, bere argazkiak begiratzeko hasi.

Dolu izugarri bat berrabiatzen da (nahiz ez den inoiz eten).

Berriro ekin, atsedetik gabe. Sisifo.

1978ko ekainak 12

Doluaren, Saminaren aldi osoan (hau bezain la-tza: ezin dut gehiago, ez dut gaituko, etab.), etengabe iraun dute, izukaitz (manera txarrekoek nola), flirtea-tze-ohiturek, sasi-maitemintzeek, desiraren diskurtso oso batek, *maite-zaitut* dioena —zeina, gainerakoan, berehala erortzen den— eta beste norbaitengan berriro hasten.

1978ko ekainak 12

Samindurazko krisia. Negarrez.

1978ko ekainak 13

Ez da dolua (samina) ezabatzea (denborak ezer desagerrarazten duelako ideia ergela), baizik eta hura aldatzea, eraldatzea, dolua pasaraztea egoera estatiko batetik (estasia, eztarriko korapiloak, zera berberaren errepikapena) egoera fluido batera.

1978ko ekainak 13

[M.-ren ernegazioa atzo iluntzean. R.-ren arrangurak].

Gaur goizean, pena handiz, berriro heldu irudiei; goitik behera astindu nau argazki batek non neskato gozo eta herabe ageri baita ama Philippe Bingerren ondoan (Chennevièreseko negu-lorategia, 1898).*

Negarrez.

Neure buruaz beste egiteko gogorik ere ez.

* Argazki hau *La Chambre claire* liburuaren bigarren zatiaren muinean dago (Les Cahiers du cinéma, Gallimard, Le Seuil, 1980).

1978ko ekainak 13

Jendeak duen mania hori (kasu honetan, Severo adeitsuak) dolua fenomenoan arabera definitzeko espontaneoki: Ez al zaude pozik bizitzarekin? Bai, ba; nire «bizitza» ondo doa, ez daukat gabezia sekulakorik; baina kanpo-arazorik batere izan gabe ere, «gorabeherarik» gabe ere, gabezia erabatekoa: hain zuzen, ez da «dolua», ezpada *samin* purua: ordezkorik gabea, sinbolizatorik gabea.

1978ko ekainak 14

(Zortzi hilabete geroago): bigarren dolua.

(Ekainak 15)

Berehala, dena hasten da berriro: zirriborroak iristen dira, eskaerak, batzuen eta besteen kontuak, eta guztiek jartzen diote parez pare, gupidagabe, nork bere erregutxoa (maitasuna, arren; aitorpena, arren): ama desagertu berri, gortu egiten nau munduak bere *segi aurrera*-rekin.

1978ko ekainak 15

Bitxia: asko sufritu dut eta halere —Argazkien gertaeraren bidez— irudipena dut *egiazko dolua* hasi dela (zeregin faltsuen pantaila erori delako, halaber).

1978ko ekainak 16

Cl. M.-ri azalduz zer-nolako larridura sentitu dudan amaren argazkiak ikustean, irudi horietatik abiatuta lan egin beharra irudikatzean; hark diost: goizegi da beharbada.

Zer-eta beti *doxa* berbera (munduko asmorik onenekin): dolua *umatu* egingo dela (hots, denborak erorarazi egingo duela fruitua nola, edo leherrarazi, furunkulua bailitzan).

Baina, niretzat, dolua mugiezina da, ez dago *prozesu* baten mende: doluari dagokionez, ezer ez da *goizegi* (Ahurtitik itzulita apartamentua txukuntzeaz berdin esan lezakete: goizegi da).

1978ko ekainak 17

1. dolua
askatasun faltsua

2. dolua
askatasun atsekabetua
hilgarria
erabilera duinik gabea

1978ko ekainak 20

Neure baitan, borrokan ari dira heriotza eta bizitza (etena, eta doluaren izaera anbigua bezala) (nork irabaziko du?); baina, momentuz, bizitza txoro bat (aferatxoak, interestxoak, hitzordutxoak).

Arazo dialektikoa: borroka bidera dadila bizitza *adimentsu* baterantz, eta ez pantaila-bizitza baterantz.

Ekainak 21

Lehendabiziko aldiz berrirakurria dolu-eguneroko hau. Negar egin dut berari buruz hitz egiten den aldiro —bere pertsonari buruz—, eta ez niri buruz.

Hunkiberatasuna, beraz, itzuli da.
Fresko, lehen dolu-egunean nola.

EGUNEROKOAREN JARRAIPENA

1978ko ekainak 24 – 1978ko urriak 25

1978ko ekainak 24

Dolu barneratuan ez dago zeinu bakar bat ere.

Erabateko barnekotasunaren gailurra da. Gizarte jakintsu guztiek, alabaina, doluaren azaleratzea preskribatzen eta kodetzen dute.

Gurearen ondoeza, dolua ukatzen duen neurrian.

(1978ko uztailak 5)
(Painter II, 68. or.)*

Dolua/Samina
(Amaren heriotza)
Proustek saminaz hitz egiten du, ez doluaz (hitz
berria, psikoanalitikoak, desitxuratzailerak)

* George D. Painter, *Marcel Proust. Tome II: Les années de maturité (1904-1922)*; itzultzaileak: G. Cattai eta R.-P. Vial, Paris, Mercure de France, 1966.

(1978ko uztailak 6)
Painter II, 405. or.

1921eko udazkena

Proust hiltzeko zorian egon da (veronal gehiegi hartuta).

—Céleste: «Guztiok elkartuko gara Josafateko bailaran.

—Hara! Benetan uste al duzu elkartuko garena? Nik neuk ziur jakingo banu Amarekin topatuko nintzatekeela, berehalaxe hilko nintzateke».

1978ko uztailak 9

Apartamentutik irten eta Marokorantz abiatu aurretik, ama gaixo egondako lekuan jarritako lorea kentzen dut; eta berriro ere hartzen nau ikara lazgarriak (bere heriotzaren ikara): cf. Winnicott: zer-nolako egia: *gertatu den horrekiko beldurra*. Baina, gauza bitxia-goa: eta itzuli ezin denarena. Horra hor *behin betikoaren* definizioa.

1978ko uztailak 13

Dolua

Moulay Bou Selham*

Enarak hegan ikusi ditut udako ilunabarrean. Neure buruari diotsat —amarengan pentsatzen dudalarik bihotza erdiratuta—: zer-nolako basakeria arimetan ez sinestea, arimen hilezkortasunean!; zer-nolako egia ergela den materialismoa!

* Casablancako auzo bat.

Dolua
RTP II, 769. or.*

[Amak, amonaren heriotzaren ostean]
...«oroitzapenaren eta ezerezaren arteko kontraesan ulertezin hau»

* Marcel Proust, *À la recherche du temps perdu*, Pierre Clarac eta André Ferréren edizioa, II. liburua, Paris, Librairie Gallimard, «Bibliothèque de la Pléiade», 1956.

Dolua

1978ko uztailak 18

(Casa)

Amarekin amestu berriro. Berak esaten zidan —oi, krudelkeria— ez nuela maite. Baina horrek lasai uzten ninduen, bai bainekien gezurra zela.

Heriotza amets bat litzatekeelako ideia. Baina bai lazgarria eternalki ametsetan jardun beharra.

(Eta, gaur goizean, bere urtemuga. Beti oparitzen nion arrosa bat. Bi erosi ditut Mers Sultaneko azoka txikian, eta neure mahaian ipini).

1978ko uztailak

Nork bere samin-erritmoa.

Dolua

1978ko uztailak 20

Ezinezkoa —duintasunik ez— drogaren bati eskaintzea samina —depresioaren aitzakiarekin—, gaixotasun bat balitz bezala, «jabetza» bat —alienazio bat (arrotz bilakatzen zaituen zer bait)—, izanik, berez, ondasun funtsezko bat, intimoa...

Mehioula. —Denbora guztian gaizki sentitu ostean (itzulera-data aurreratzera), nolabaiteko bakea eta zorion-antzeko zerbait aurkitu dut M.-en; depresioa laxatzen. Eta hala ulertu dut, bada, zer ez dudan jasaten: mundutartasuna; mundua, exotikoa izanik ere (Moulay Bou Selham, Casa), eta zer behar dudan: *erbesteratze goxo bat*: jenderik ez, (*neure* jenderik ez), bakardaderik gabe (El Jadidan bertan, lagunak dauzkadan leku batean, okerrago sentitzen naiz); baina hemen ez daukat Moka baizik, zeinaren hitzak apenas ulertzen ditudan (nahiz eta maiz mintzatzen zaidan), haren emazte polit eta mutua, haren umeak, basatiak, Ouedeko mutilak, desiratzailerak, Angel, zeinak lirio eta gladiolo horien sorta erraldoi bat dakarkidan, txakurrak (zalaparta, bestalde, gaez), etab.

Dolua

1978ko uztailak 24

Mehioula

Bidaia osoan, azkenean, garrasi hau —berarengan pentsatzen dudan aldiro: *itzuli nahi dut!* (etxeratu nahi dut!)—, nahiz eta badakidan bera ez dela han izango nire zain.

(Bera ez dagoen lekura itzultzea? —non elementu arrotzik, axolagaberik ez egoteak gogora ekartzen didan bera jada ez dagoela).

[Hementxe bertan, Mehioulan, non hain gertu izan dudan bakardade jasangarria, non sentitu naizen, neure bidaia guztien artean, inon baino hobeto azken finean; hemen, «munduak» muturra agertu duenetik (Casako lagunak, irrati txikia, El Jadidako lagunak, etab.), okerrago sentitu naiz].

Dolua

Mehioula
1978ko uztailak 24

Azken eguna M.-en

Goiza. Eguzkia; txori bat, kantu berezi batekin, literarioa, landako hotsak (motor bat), bakardadea, bakera, erasorik ez.

Eta, alabaina, edo inoiz baino gehiago, giro *puru* batean negarrez hasten naiz gogora datozkidala amaren hitzak, beti erretzen eta suntsitzen nautenak: R neure! R neure! (Ezin izan diot inori esan).

Dolua

1978ko uztailak 24

Amak eman zidana: *erregulartasuna gorputzean*;
ez Legea, ezpada Araua (Eraginkortasuna, baina esku-
ragarritasun gutxi).

Dolua

1978ko uztailak 24

Edo Φ^*

Neguko Lorategiko argazkia: jo eta ke saiatzen naiz zentzu agerikoa esaten.

(Argazkia: agerikoa dena esateko ezintasuna. Literaturaren hasiera)

«Inozentzia»: inoiz kalterik egingo ez duena.

* Roland Barthesek sarritan «argazkilaritza» hitza laburtzeko darabilen zeinua, esaterako *La chambre claire* liburuaren prestaketa oharretan. Ikus Jean-Louis Lebrave, «Point sur la genèse de *La chambre claire*», in *Genesis*, 19. zki, Paris, Jean-Michel Place, 2002.

[Atzo iluntzean, 78ko uztailak 26, Casatik itzulita, afaria lagunekin. Jatetxean (Lakuko Pabilioikoa) Paul desagertu egin zen; JL-k uste du haien bien arteko liskar baten ondorioz izan zela. Zeharo aztoratuta dago, haren atzetik abiatzen da, izerdi patsetan itzultzen, larrituta, errudun sentituz —gogora dakartza P.-ren suizidio-bulkadak, etab.; berriro abiatzen da, parkeetan bilatzeko, etab.].

Solasean: nola jakin? P. erotuta dago (happening) edo krudela da (diot, neure burua adituz: *manera txarrekoa*). (Erotasunaren arazo hau, beti).

→ Eta zera pentsatzen dut: *Amak erakutsi zidan ezin zaiola sufrimendurik eragin maite denari.*

Amak ez zion inoiz sufrimendurik eragin maite zuenari. Horixe zuen bere definizioa, bere «inozentzia».

Proustek, bere ama hil ostean, André Beaunierri bidalitako gutuna, 1906.

Proustek azaltzen zuen ezin zezakeela zorionik senti ez bazen bere saminean... (baina errudun sentitzen zen kezka-iturri izana zelako, bere osasun eskasaren ondorioz, amarentzat). «Pentsamendu honek ez banindu etengabe erdiratuko, aurkituko nuke oroimenean, biziraupenean, geu bizi ginen batasun perfektuan, gozotasun bat, niretzat ezezaguna».

—31. or: Gutuna Georges de Laurisi, zeinak ama galdu baitu berriki (1907)

«Orain, gauza bat esan diezazuket: iritsiko dira une gozoak, sinetsi ezingo zenituzkeenak. Ama alboan zeneukanean, sarritan pentsatzen zenuen oraingo egunetan, ama edukiko ez zenuen egunetan. Orain, aldiz, maiz gogoratuko zaizkizu antzinako egunak, ama zurekin zegoen garaikoak. Ohitzen zarenean gauza ikaragarri horretara, aldiro antzinako garaira bidalia izatera, sentituko duzu nola, leun-leun, ama biziberritzen den, bere lekura itzultzen den, bere lekura oso-osorik, zeure aldamenera. Une honetan oraindik

* Henri Bonnet, *Marcel Proust de 1907 à 1914*, Paris, Nizet, 1971.

ez da posible. Zaude geldirik, zain, indar ulergaitz horrek (...), hautsi zaituenak, apur bat jaso zaitzan, eta apur bat diot zeren betirako egongo baitzara zertxobait hautsita. Esan hori zeure buruari, zeren gozoa baita jakitea norberak sekula ez duela gutxiago maite izango, norbera ez dela sekula kontsolatuko, norbera akordatu tuko dela gero eta gehiago».

1978ko uztailak 29

(Hitchcocken film bat ikusi dut, *Kaprikornioaren zeinuaren pean*)

Ingrid Bergman (1946 inguruan): ez dakit zergatik, eta ez dakit nola esan, aktore honek, aktore honen gorputzak, hunkitu egiten nau, ama gogorarazten didan zerbait ukitzen du neure baitan: haren aurpegiko azala, haren esku eder guztiz soilak, halako freskotasun-itxura bat, feminitate ez-nartzisista bat...

Paris, 1978ko uztailak 31

Neure saminean bizi naiz, eta horrek zoriontsu egiten nau.

Neure saminean bizitzea eragozten didan oro jasanezina zait.

1978ko uztailak 31

Neure saminean bizi izatea: ez dut desio besterik.

1978ko abuztuak 1

[Beharbada aipatu dut jada]

Beti harritu nau (gauza mingarria) neure saminarekin bizi ahal izateak —azkenean—, horrek esan nahi du samina *pairagarria* dela, literalki. Baina —dudarik gabe— hori gertatzen da ahalmena dudalako, hobeto edo okerrago (hots, ez lortzearen sentipenarekin), samina mintzatzeko, samina esalditan jartzeko. Neure kulturak, neure idazketa-zaletasunak, botere apotropaiko hori ematen dit, *integrazioaren* boterea, alegia: *integratu** egiten dut, mintzairaren bidez.

Neure samina *adierazezina* da, baina, hala eta guztiz ere, *esangarria*. Hizkuntzak berak eskura jartzen dit «*pairaezin*» hitza, eta horrek berak berehala lortzen du nolabaiteko *pairatze* bat.

*multzo batean sarraraztea —federatzea—, sozializatzea, komunaltzea, taldetzea

1978ko abuztuak 1

Zenbait leku eta bidaiek eragindako desengainua. Ez nago ondo inon. Laster asko, garrasi hau: *Etixeratu nahi dut!* (baina, nora? bera ez dago jada inon, eta haraxe zen ni *etxera nintekeen* lekua). Neure lekua-ren bila. Sitio.

1978ko abuztuak 1

Literatura horixe da: jada ezin dut irakurri, minik gabe, itolarririk gabe, Proustek gaixotasunari buruzko gutunetan dioen guztia: ausardia, bere amaren heriotza, bere samina, etab.

1978ko abuztuak 1

Doluaren figura ikaragarria: tristura, bihotz lehorra; petralkeria, maitatu ezina. Larrituta, ez baitakit nola ekarri berriro ere eskuzabaltasuna, edo maitasuna, neure bizitzara. Nola maitatu?

—Hurbilago Bernanosen Amarengandik (Apai-zarengandik) Freuden eskematik baino.

—Nola maite nuen ama: ez nion inoiz kontra egiten bera ikusteari, txoratzen jartzen nintzen berarekin elkartzean (oporrak), neure «askatasunean» sartzen nuen; labur esanda, kidegu egiten nuen sakonki, zorrozki. Tristura, hala, nahigabe honetatik dator: ez dago inortxo ere nire inguruan, zeinarengatik horixe egiteko kemena izango nukeen. Egoismo nahigabetua.

1978ko abuztuak 1

Dolua. Maite duguna hil ostean, nartzisismo-bolada bizia: gaixotasunetik irten gara, morrontzatic. Ondoren, pixkana-pixkana, askatasuna beruneztatzen da, nahigabea finkatzen, nartzisismoak bidea ematen dio egoismo triste bati, eskuzabaltasun-gabezia bati.

1978ko abuztuak 3

Batzuetan (adibidez, atzo, Liburutegi Nazionaleko patioan), nola adierazi pentsamendu hau, tximista bezain iheskorra: ama ez dagoela hemen, *betirako*; halako hegala beltz bat (behin betikotasunarena) igaro zait gaineratik, eta arnasa eten dit; min bat hain bizia non, bizirik iraute aldera, beste norabait bideratzen bainaiz lehenbailehen.

1978ko abuztuak 3

Neure bakardade-premia (itxuraz funtsezkoa) aztertzen: alabaina, badut orobat neure lagunen premia (berdin funtsezkoa).

Beharrezkoa litzateke, orduan: 1) neure buruari eskatzea noizean behin haiei «deitzeko», energia biltzea, neure apatiari kontra egitea —apatia telefonikoari, bereziki—; 2) haiei eskatzea hau uler dezaten: niri utzi behar didatela deitzen. Haiek gutxiagotan kuku egingo balidate, eta ez hain sistematikoki, niretzat zentzua izango luke neronek kuku egitea beraiei.

Dolua

1978ko abuztuak 3

Honelako bidaiak bakarrik egin nahi ditut: *etxe-ratu nahi dut!* esateko astirik ematen ez didatenak.

(1978ko abuztuak 10)
Proust SB 87*

«Edertasuna ez da guk irudikatzen dugunaren superlatibo bat bezalakoa, begien parean daukagun eredu abstraktu bat bezalakoa, baizik eta, kontrara, eredu berri bat, irudikatu ezina, zeina errealitateak aurkezten baitigu».

[Era berean: neure samina ez da penaren, abandonuaren, eta abarren superlatiboa bezalakoa, ez da eredu abstraktu bat bezalakoa (adieraz daitekeena metalengoiaren bidez), baizik eta, kontrara, eredu berri bat, etab.].

* Marcel Proust, *Contre Sainte-Beuve*, Bernard de Falloisek finkatutako edizioa, Paris, Gallimard, 1954 (Barthesek darabilen edizioa, orrialdeei erreparatuta, «Idées-Gallimard» bildumako poltsiko-edizioa da, 1965ean argitaratua; 1954ko edizioan, berriz, 80. orrialdea da).

1978ko abuztuak 10

Proust, *Contre Saint-Beuve*, 146

Bere amari buruz:

...«eta bere bisaiaren... lerro ederrak, osorik blaitzen zituztela gozotasun kristauak eta kemen jansenistak [protestanteak]...»*

* Prousten aipuak (1954ko edizioko 128. orrialdean) hala dio: «Eta bere bisaia juduaren lerro ederrek, osorik blaitzen zituztela gozotasun kristauak eta kemen jansenistak, Esther bera bilakatzen zuten familiaren errepresentazio txiki, konbentuzko kasik, zeina berak irudikatzen baitzuen ohean zetzan gaixo despotikoa entretenitzeko». Roland Barthesek erantsi zuen «protestante» hitza kortexete artean, hori baitzen bere amaren fedea.

(78ko abuztuak 10)
Sainte-Beuve, 356

«Isildu egiten ginen biok»

Prousten eta bere amaren banaketari buruzko orrialde erdiragarriak.

«Baina joaten banintzen zenbait hilabetez, zenbait urtez, zenbait...».

«Isildu egin ginen biok... etab.».

eta: «Esan nuen: beti. Baina, iluntzean (...) ari-mak hilezkorrak dira eta egun batean bitez elkartu...»

(1978ko abuztuak 10)

Harritu egin nau zera jakiteak: Jesusek maite zuela Lazaro, eta hura berpiztu aurretik negar egin zuela (Joan, 11).

«Jauna! Zure adiskidea gaixo dago»

Hau gaixo zegoela jakinda ere, Jesus beste bi egunez gelditu zen zegoen lekuan.

«Lazaro gure adiskidea loak hartu du; baina banoa iratzartzera [hura berpiztera]».

«Jesusi barruak zirrara egin zion. Hunkiturik, etab.»

11,35. «Jauna, zatoz eta ikusi». Jesusek negarrari eman zion. Han zeuden juduek esan zuten: «Bai maite zuela!».

Ostera ere hunkiturik...

(1978ko abuztuak 10)

[Robert de Flersen amona hil berriaren erretratu,
Prousten eskutik (*Chroniques*, 72. or.)^{*}

«Neuk, zeinak ikusiak baintuen *bere amona-malkoak*,
bere neskato-malkoak...]

* Marcel Proust, *Chroniques*, Robert Proustek finkatutako edizioa, Gallimard, 1927. Aipatzen den testua «Amona bat» deitzen da, eta *Le Figaro* egunkarian argitaratu zen 1907ko uztailaren 23an. Roland Barthesena da azpimarra, eta orrialdea ez da zuzena: egiaz, 67.-68. orrialdeetan agertzen da aipua.

1978ko abuztuak 11

Schumannen bilduma bati orri-pasaka, kolpetik gogoratu naiz amak asko maite izan zituela Intermezzi delakoak (behin irratian pasarazi nituen).

Ama: hitz gutxi bion artean, isilik geratzen nintzen (La Bruyèreren hitzak, Proustek aipatuak), baina gogoan ditut bere zaletasun txikiak, bere epai den mendrenak ere.

1978ko abuztuak 12

(Haiku, Munier, XXII. or.)*

Abuztuaren 15eko asteburuaren baretasuna: Irratian Bartóken *Egurrezko printzea* ematen duten bitartean, haxe irakurtzen dut nik (Kashinoko Tenplura bisita, Bashôren bidaia handiaren kontakizuna): «Eserita geratu ginen une luze-luze batez, isiltasun erabatekoan».

Kolpetik nolabaiteko satori bat sentitu nuen, gozoa, zorionekoa, neure dolua baretuko balitz bezala; sublimatu, adiskidetu, sakondu, baina deuseztatu gabe; «neure burua berraurkituko» banu bezala.

* Roger Munier, *Haïku*, hitzaurrea: Yves Bonnefoy, Paris, Fayard, «Documents spirituels» bilduma, 1978.

Zergatik egiten zait jasanezina bidaiatzea? Zergatik nahi dut, galdu den haurra nola, etengabe «etxeratu», nahiz eta etxean jada amarik ez egon?

Amarekiko «elkarrizketan» segitzea (presentzia izanik trukutzen den hitza) ez da barne-diskurtoaren bitartez egiten (nik ez dut sekula berarekin «hitz egin»), baizik eta bizimoduan: ahalegintzen naiz, egunerokoan, haren balioen arabera bizitzen: berak prestatzen zuen janaria berriro aurkitu, neronek prestatuz; etxean izaten zuen txukuntasuna gorde; etikaren eta estetikaren arteko aliantza hori: bizitzeko eta egunerokoa garatzeko bere molde konparaezina. Baina etxekotasun enpirikoaren «izaera» hori ezinezkoa da bidaiari; neure etxean bakarrik da posible. Bidaiatzea, beraz, berarengandik bereiztea da —are gehiago orain, bera ez dagoen honetan—, bera bihurtua baita egunerokotasunaren intimitatea soilik.

1978ko abuztuak 18

Gelako leku hori non bera gaixo egon baitzen, non bera hil baitzen eta non ni bizi bainaiz orain; bere oheburua bermatzen zen paretan ikono bat jarri dut —ez fedeagatik—, eta beti jartzen ditut loreak mahai batean. Jada ez dut bidaiatu nahi, bertan egon ahal izateko, loreak sekula ez zimeltzeko.

1978ko abuztuak 19

Egunerokotasun isilaren balioak partekatzea (sukaldea antolatu, garbitasuna, arropak, estetika eta objektuen iragana): horra hor nola mintzatzen naizen (isilik) amarekin. Eta hara non, bera jada ez egonik ere, oraindik egin dezakedan.

1978ko abuztuak 21

Azken finean, depresioen, *hau ez dago ondo* uneen ezaugarri komuna (bidaiak, egoera mundutarrak, Ahurtiko alderdi batzuk, eskaera kripto-maitasunezkoak), hauxe litzateke: jada ez dudala jasaten amaren *ordezkapen* gisa har nezakeen ezer —txandaka izanik ere—.

Eta zer egoeratan sentitzen naizen hobekien, bada, nolabait ere, berarekin neraman bizitzaren *luza-pen* halako bat gertatzen denean (apartamentuan).

1978ko abuztuak 21

Zergatik desio nezake inongo famarik, inongo lorratzik uzterik, aintzat hartuta neuk gehien maite izan ditudan norbanakoek, gehien maite ditudanek, ez dutela halakorik lagako, ez nik ez iraganean bizirik iraun zuten batzuek? Zer axola zait neure bizialditik harago irautea, Historiaren ezezagutza hotz eta gezurtian, aintzat hartuta amaren oroimenak ez duela iraungo neuk eta ama ezagutu zutenek baino gehiago, zeinak hilko baitira orobat beren garaia iritsita? Ez nuke nahi «monumenturik» neuretzat bakarrik.

1978ko abuztuak 21

Samina berekoa da.

Nitaz bakarrik mintzatzen naiz. Ezin dut berari buruz hitz egin, ezin dut esan bera zer zen, ezin dut egin bere erretratu hunkigarririk (Gidek Madeleineri buruz egin zuena bezalakorik).

(Alabaina: dena da egia; gozotasuna, energia, noblezia, ontasuna).

1978ko abuztuak 21

Zer dagoen neure saminetik urrutien, zer suertatzen zaidan neure saminarekiko zakarren: *Le Monde* egunkariaren irakurketa, horko molde garratz eta informatuak.

1978ko abuztuak 21

Jlri azaltzen saiatu naiz (baina aski da esaldi batekin):

Bizitza osoan, haurtzaroaz geroztik, *plazera* irudititu zait amarekin egotea. Ez zen ohitura bat. Zoratzen egoten nintzen A.-ko oporraldiaren bezperatan (nahiz eta ez zaidan batere gustatzen landa aldea), banekielako, jakin, han berarekin egongo nintzela denbora guztian.

1978ko irailak 13

Doluaren
saminaren
egoismo (egotismo)
gaiztoa

Nire Morala*

- Diskrezioaren kuraia
- Ausarta da ausarta ez izatea

* Txartel hau —datarik gabea— zeharkako trazu batek estaltzen du.

1978ko irailak 17

Amaren heriotzaz geroztik, nahiz eta buru-belarri saiatu naizen —edo horregatik beragatik— idazketa-proiektu handi bat abian jartzen, neure buruarenganako eta idazten dudan horrekiko konfiantzaren nahasmendu progresiboa.

(1978ko urriak 3)

Xumetasun sakon hori, zeinaren ondorioz kontua ez den ez zeukala gauza bakar bat ere (aszetismorik ez); aitzitik, gauza gutxi batzuk zeuzkan, eragotzi nahi izan balu bezala, bere heriotzaren ostean, inor «libratu» behar izatea bereak izandako puskez.

(1978ko urriak 3)

Luze jotzen du (eta nola) bera gabe.

1978ko urriak 6

[Gaur arratsaldean, atzeratutako zereginen tropel nekagarriak. Hitzaldia Collègen → Bil litekeen jendetzan pentsatzea → Hunkiberatasuna → BELDURRA. Eta hau deskubritu (?) dut]:

BELDURRA: nire baitako kontu zentral gisa adierazia —eta idatzia—. Amaren heriotzaren aurretik, honako Beldur hau: bera galtzeko beldurra.

Eta orain, bera galdu dudalarik?

BELDUR naiz oraindik, eta beharbada lehen baino gehiago, zeren, kontu paradoxikoa, hauskorragoa bainaiz (horregatik nahi dut erretiratu, hots, Beldurretik osoki babestuko nauen leku batera iritsi).

—Beldurra, beraz: baina zerekikoa orain? Ni neu hiltzekoa? Bai, zalantzarik gabe. Baina, iruditzen zait, gutxiago —hala sentitzen dut—, zeren hiltzea baita amak egin duena (berarekin elkartzearen fantasma ongilea).

—Horrenbestez, Winnicotten psikotikoak nola, *jada gertatu den hondamen baten beldur naiz*. Behin eta berriro abiatzen dut neure baitan, mila ordezeko baliatuz.

—Hori dela eta, berehala dator pentsamenduen, erabakien, olde oso bat.

—Beldur hori iraitzea, *beldur naizen lekura* joanez (erraza da leku horiek identifikatzea, hunkiberatasunaren seinaleari esker).

—Amari buruzko testuaren idazketa eragozten didan hori, testu horretatik urruntzen nauen hori, gelditu gabe ezabatzea: Saminaren abiada aktiboa; Samina iristea Aktibo izatera.

[Testuak txartel honen inguruan bukatu behar-ko luke, Beldurraren irekiera (erditze, desertzio) honen inguruan].

(1978ko urriak 7)

Neure baitan erreproduzitzen ditut —baieztatu egiten dut neure baitan erreproduzitzen ditudala— amaren ezaugarri txikiak; ahaztu egiten zaizkit: giltzak, azokan erositako frutak.

Haren trazatzat hartzen genituen memoria-makalaldiak (entzun egiten ditut gai horren harira agertzen zituen kexa apalak) neure bilakatzen dira.

1978ko urriak 8

Heriotzari dagokionez, amaren heriotzak ziurtatu dit (ziurtasun abstraktua ordura arte) gizaki oro dela hilkorra —ez dela inoiz izango bereizketarik horretan—, eta *logika horrexegatik* hil beharraren ziurtasunak baretu egiten nau.

1978ko urriak 20

Badator amaren heriotzaren urteurrena. Beldur naiz, gero eta gehiago: egun horrexetan (urriak 25) berak bigarrenez hil behar balu bezala.

1978ko urriak 25

Amaren heriotzaren urteurrena.
Ahurtin pasa dut eguna.

Ahurti, etxea hutsik, hilerria, hilobi berria (al-
tuegia, masiboegia berarentzat: hain meharra zelarik
amaieran); neure bihotza ez da lasaitzen; lehor bezala
nago, barnekotasunak dakarren ongintzarik gabe. Ur-
teurrenaren sinbolismoak ez dit ezer ekarri.

1978ko urriak 25

Berriro pentsatu dut Tolstoiren *Serge aita* nobelatxoan (berriki ikusi dut filma: txarra). Azken atala: bakea aurkitzen du (Zentzua, edo Zentzuaren Salbuespena), topo egiten duenean, bere haurtzaroan bezala, neskatxo txiki batekin, amona bihurtua, Mavra, zeina maitasunez arduratzen baita beretarrez, kezkatu gabe itxuraz, santutasunaz, Elizaz, etab. Neure kautan diot: ama da. Amaren kasuan, inoiz ez metalengoaiarik, poserik, itxuratu nahirik. Horixe da, ba, «Santutasuna».

[Oi, paradoxa: ni neu, hain «intelektuala», edo gutxienez hala izatea leporatzen zaiona; ni neu, etengabeko metalengoaiak hainbesteraino ehundua (eta babesten dut), eta hara non berak burujabetasunez esaten didan ez-lengoia].

[EGUNEROKOAREN JARRAIPEN BERRIA]

1978ko azaroak 4 – 1979ko irailak 15

1978ko azaroak 4

Dolu-ohar hauek bakantzen ari dira. Hondartzea. Zer, bilakabide gupidagabea, ahanztura? («gaixotasuna» iragaten da?). Eta, hala ere...

Saminaren itsasgora: erriberak utzita, ezer ez begi bistan. Idazketa jada ez da posible.

1978ko azaroak 22

Bart iluntzean koktel-gaualdia Seuilen egin ditudan 25 urteak ospatzeko. Lagun mordoa. —Pozik zaude? —Bai, noski [baina amaren falta dut].

«Mundutartasun» orok bera jada ez dagoen munduaren «handikeria».

Etengabe daukat «bihotza astun».

Urradura hau, oso bortitza gaurko goiz grisean, etorri zait, apur bat pentsatuz gero, Rachelen irudiarren eraginez: pixka bat urrun eserita zegoen atzo, pozik koktelarengatik, non mintzatu baitzen noiz hauekin noiz besteekin, duin, «bere lekuan», jada emakumeak egoten ez diren moduan, eta arrazoiz, ez baitute halako lekurik nahi —halako duintasun galdu eta bakan bat—, amarena bezalakoa (bera han zegoen, erabateko ontasuna, denoi emana, eta hala ere «bere lekuan»).

(1978ko abenduak 4)

Gero eta gutxiago idazten dut neure samina, baina zentzu batean bortitzagoa da, eternalaren mailara igarota, jada idazten ez dudanetik.

1978ko abenduak 15

Larritasun-geruza baten gainean, izu-geruza baten gainean (jazarpena, zereginak, gaizkinahi literarioa), samin-bola bat goraka:

1) Nire inguruko askok maite naute, babesten naute, baina inor ez da *sendoa*: denak dira (denok gara) eroak, neurotikoak, urruneko inorengana jo beharrik gabe, tipo RH. Soilik ama zen indartsua, bera ez baitzuen ukitzen inongo neurosik, inongo erotasunek.

2) Nire eskolak idazten, *Nire Eleberria* idaztera iritsi naiz. Hala, amaren azken hitzetako batzuk gogoratzen ditut, erdiratuta: *Roland neure! Roland neure!* Negar egiteko gogoia.

[Argi dago gaizki egongo naizela harik eta, *berarengandik abiatuta*, zerbait idazten ez dudana arte (Argazki, edo beste zerbait)].

1978ko abenduak 22

Oi, esatea zer-nolako desira sakona datorkidan —neure baitara biltzekoa, erretiratzekoa, «ez arduratu nitaz» esatekoa—, zuzen-zuzen, irmo, neure saminetik, «eternal» antzekoa; neure baitara biltze hain *egiazkoa*, non liskartxo saihestezinak, irudi-jokoak, zauriak, norberak *bizirik dirauen* heinean halabeharrez gertatzen diren horiek guztiak ez baitira ur sakonen gainazaleko apar gazi, mingotsa besterik...

1978ko abenduak 23

Atsekabe txikiak, erasoak, mehatxuak, jazarpenak, porrot-sentipena, garai beltza, zama astuna eramane beharra, «kartzela», etab. Hori guztia ezinbestean lotzen dut amarekin heriotzarekin. Kontua ez da —magia erraza— bera jada ez dagoela hemen ni babesteko, nire lanari beti eusten ziola berak konkretuki; baizik eta —baina ez al da gauza bera?— orain behartuta nagoela *mundua ikasten hastera*: inimizazio gogorra, bai. Jaiotza baten miseriak.

1978ko abenduak 29

Hor dirau, txikiagotu gabe, lehorreak, bihotz mingotsak, jeloskortasunerako joerak, etab.: nire bihotzaren barrutik ez maitatzea eragiten duen oro.

Autodebaluazio-garaia (doluaren mekanismo klasikoa).

Nola aurkitu berriro ere ekuanimitatea?

1978ko abenduak 29

Erreproduzitzera bidalitako amaren argazkia jasorik atzo —neskatotako argazki bat, Chennevièrreseko negu-lorategiaren parean— neure aurrean jartzen saiatzen naiz, laneko mahaian. Baina gehiegi da, jasanezina zait, pena handiegia ematen dit. Irudi honek kontra egiten die nire bizitzako bataila hutsal, nobleziarik gabeko, guztiei. Irudia zinez da neurri bat, epaile bat (orain ulertzen dut nola santifikatu daitezkeen argazkiak, nola gida dezaketen, → ez da *identitatea* oroitzen, ezpada, *identitate* horren barruan, *adierazpen* bakan bat, bertute bat»).

1978ko abenduak 31

Samina izugarrizkoa da, baina neure gainean duen eragina (zeren samina: ez bere horretan: ezpada efektu desbideratuen ondorioz) halako gordailu bat da; herdoila, lokatza pilatzen da nire bihotzean: bihotzaren *mikaztasun* bat (erretxina, sumindura, jeloskortasuna, maitasun-gabezia).

→ Oi, halako kontraesanik: amaren galeraren birtartez, bera zenaren kontrakoa bihurtzen naiz. Haren adorearen arabera bizi nahi, eta kontrakoa baizik ez dut lortzen.

1979ko urtarrilak 11

...ezpainak bere masail fresko eta zimurtuetan
berriro ez jartzearen oinazea...

[Arrunta da
—Heriotza, Samina, hori baizik ez dira: arrun-
tak].

1979ko urtarrilak 11

Sentsazio mingarri hau beti: zereginek, jendeak, eskaerek, etab. amarengandik bereizten nautela. «Mar-txoak 10» noiz iritsiko zain nago, baina ez oporrak hartzeko, baizik eta amak betetzen duen prestutasun bat aurkitzeko.

1979ko urtarrilak 17

Apurka-apurka gabeziaren efektua zehazten da:
ez daukat gogorik ezer berririk *eraikitzeko* (idazketan
izan ezik): ez laguntasunik, ez maitasunik, etab.

1979ko urtarrilak 18

Amaren heriotzaz geroztik ezer «eraikitzeko»
gogorik ez —salbu eta idazketan. Zergatik? Literatura =
Nobleziaren eskualde bakarra (ama bezalaxe).

1979ko urtarrilak 20

Amaren neskatotako argazkia, urrutira: aurrean jarri dut, mahaian. Aski nuen berari begiratzea, bere izatearen zera harrapatzea (deskribatu ala ez, kinkan nago), eta berriro inguratzen nau, berriro murgiltzen, blaitzen, bere ontasunak.

1979ko urtarrilak 30

Ez duzu ahazten
baina zerbait *azentugabea* finkatzen da zugaran.

1979ko otsailak 22

Amarengandik banatzen nauena (harenganako identifikazioa zitzaidan dolutik banatzen nauena) denboraren lodiera da (gero eta handiagoa, progresiboki pilatua), non, bere heriotzaz geroztik, gai izan bainaiz bera gabe bizitzeko, apartamentuan egoteko, lan egiteko, irteteko, etab.

1979ko martxoak 7

Zergatik ezin naizen lotu, atxiki, obra jakin batzuei, norbanako jakin batzuei: adib., JMV. Kontua da nire berezko *balioak* (estetikoak eta etikoak) amarengandik datozkidala. Berak maite zuenak (berak maite ez zuenak) osatu ditu nire balioak.

1979ko martxoak 9

Ama eta pobrezia: bere borroka, bere desengai-
nuak, bere kemena. Halako epopeia bat, heroi-jarrerarik
gabe.

1979ko martxoak 15

Neuk baino ez dut ezagutzen urte eta erdian egin dudan bidea: dolu mugiezin eta ez-ikusgarri honen ekonomia, zeinak denbora guztian eduki bainau nire zereginetatik aparte; neure baitan, beti proiektatu dut bereizketa hori etetea liburu baten bidez —egoskorkeria, klandestinitatea.

1979ko martxoak 18

Bart gauean, amesgaiztoa. Sesioa amarekin. Desadostasuna, oinazea, malkoak: harengandik banatuta nengoen zerbaitegatik (berak hala erabakita?), zerbait *espirituala*. Bere erabakiak Micheli ere eragiten zion. Beregana ezin iristea.

1979ko martxoak 18

Berarekin amets egiten dudan aldiro (eta berarekin amets egiten dut aldiro), ikusi egiten dut, bizirik dagoela sinesten, baina beste bat da, aparte dago.

1979ko martxoak 29*

Geroko famarekiko inongo kezkarik gabe bizi naiz, ez dut inongo desirarik gerora irakur nazaten (salbu eta diruari dagokion heinean, M.-rengatik), erabat desagertzearen onarpen osoa, ez dut inongo «monumenturik» nahi; baina ezin dut jasan hori hala izaterik amaren kasuan (beharbada, berak ez zuelako idatzi, eta bere oroimena neure mende dagoelako guztiz).

* *La Chambre claire* liburuaren idazketa-data txartel honen ostean abiatzen da; liburu horren amaieran aipatzen da, hain zuzen: «1979ko apirilak 15 - ekainak 3».

1979ko maiatzak 1

Ni ez nintzen bera *bezalakoa*, ni ez bainintzen berarekin (aldi berean) hil.

1979ko ekainak 18
Greziatik itzulita

Amaren heriotzaz geroztik, nire bizitzak ez du lortzen oroitzapen gisa osatzerik. Matea da, «Akordatzen naiz...»-ak sortzen duen halo bibrakorrik gabe...

1979ko uztailak 22

Proiektuaren^{*} «salbamendu» guztiek huts egiten dute. Hementxe naiz, zer egin ez dakidala, obrarik ez parean, errutinaren betebeharrak errepikakorrak soilik. Proiektu-forma oro: bigun, erresistentziarik gabe, energia-koefiziente ahula. «Zertarako?».

—Une honetan argiki etorriko balitz bezala (orain arte hainbat amarruk hurrenez hurren atzeratua) doluaren oihartzun solemnea, obra bat egiteko aukerari buruz.

Doluaren proba nagusi, heldu, zentral, erabakigarria.

* *Vita Nova*-ri buruz ari da, dudarik gabe, cf. 8. oharra, 75. or.

1979ko abuztuak 13

Ahurtitik bueltan, egonaldi zail baten ostean, trenean, Dax parean (Hegomendebaldeko argi hori, neure bizitzan lagun izan dudana), desesperatuta, malkotan, amaren heriotzarengatik.

* Gai honen harira, irakurri «La lumière du Sud-Ouest», zeina *L'Humanité*-n argitaratu baitzen 1927ko irailaren 10ean; *Oeuvres Complètes*, V. liburua, 330-334. or.

(1979ko abuztuak 19)

Nola amak, nahiz eta barneratutako lege bat eman zigun (noblezia-irudi bat), eskuragarri utzi gintuen (M eta biok) desirarekiko, gauzen zaletasunarekiko: Flauberti ezerekin atsegin hartzea eragozten zion eta arima akabatzeraino betetzen zuen «ezinegon erradikal, intimo, garratz eta etengabea»ren guztiz kontrakoa.

1979ko irailak 1

Ahurtitik bueltan, hegazkinean.

Beti bezain bizi, nahiz mutu, oinazea, nahigabea... («R neure, R neure»).

—Zorigaiztokoa naiz, triste nago Ahurtin.

—Zoriontsua al naiz, orduan, Parisen? Ez, horra tranpa. Gauza baten kontrakoa ez da gauza horren kontrakoa, etab.

Zorigaiztoko nintzen leku batetik alde egin, eta horrek ez ninduen zoriontsu egiten.

1979ko irailak 1

Ezin diot uko egin, sinbolikoki, Ahurtin nagoen bakoitzean, iristerakoan eta alde egin aurretik, amaren hilobia ikustera joateari. Baina, parean nagoela, ez dakit zer egin. Otoitz? Zer esan nahi du horrek? Zein da edukia? Barnekotasun-jarrera batean jartzearen zirriborro iheskorra besterik ez. Berehala joaten naiz, beraz.

(gainera, hilerri horretan, alabaina landa aldekoa, hilobiak hain dira itsusiak...).

1979ko irailak 1

Nahigabea, inon ondo egon ezina, itoaldiak, sumindurak eta ausikiak elkarren segidan, hori guztia biltzen da «gizonaren miseria» izendapenean, Pascalek erabilia.

1979ko irailak 2

Siesta. Ametsa: bere irribarrea, zehatz-mehatz.
Ametsa: oroitzapen osoa, lorpena.

1979ko irailak 15

Badira goiz batzuk hain tristeak...

DATARIK GABEKO ZATI BATZUK

[amaren heriotzaren ostean]
Mingarriki, gaitasunik ez hemendik aurrera —
neure burua inarrosteko...

*

Suizidioa
Nola jakingo dut jada ez dudala sufritzen, hilda
baldin banago?

*

Neure heriotzaz izan nezakeen irudikapenean
(mundu guztiak badu berea), neurri berean eransten
nituen goiz desagertzearen larritasuna eta berari egin-
go niokeen min *jasanezina*.

*

Gure berbalizazioaren, gure hitzen, arrarotasuna
dela-eta, haien hutsaltasuna dela-eta: bai, baina inoiz
ez arrunkeriarik, ergelkeriarik, laprastadarik...

*

«Natura»
Jatorriz landa aldekoa izan gabe, nola maite
zuen «Natura», hots, Naturala den hori, Kutsaduraren
Aurkako imintzio bat bera ere gabe; hori ez zen bere
belaunaldia. Ondo sentitzen zen lorategi zertxobait
nahasietan, etab.

**AMARI BURUZKO
OHAR BATZUK**

1977ko apirilak 15

Hurrei bezala hitz egiten dio goizeko erizainak amari, ahots apur bat ozenegiarekin; inkisizio-ahotsa, errietazkoa eta totoloa. Berak ez daki amak epaitu egiten duela.

[Horra hor zozokeria].

Ez dugu inoiz hitz egiten amen adimenaz, beren afektibitatea murriztuko balu bezala, urrundu. Baina adimena da norbanako batekin burujabe bizitzea ahalbidetzen digun oro.

*

—Ama eta erlijioa
—Ez zuen sekula hitzetan jartzen
—Atxikimendu bat (baina zer eratakoa) Baionako talde bati
—Ontasuna gutxiengoarentzat?
—Indarkeriarik eza

*

1978ko ekainak 7

Kristautasuna: Eliza: oso kontra ginen, bai, Estatuarekin, Boterearekin, Kolonialismoarekin, Burgesiarekin, etab. lotuta zegoenean.

Baina, aurreko batean, halako egiaztapen bat, era honetakoa: *funtsean...* Hala al da oraindik? Ez al da ideologiaren eta moralaren zirkua oraindik ere *indarkeriarik ezaz* apur bat pentsatzen den leku bakarra?

Alabaina, niretzat bada oraindik bereizketa bizi bat, Fedearekin dagoenaz (eta, jakina, Akatsaz). Baina zer da garrantzitsua? Indarkeriarik gabeko Fedea (militarismorik gabea, proselitismorik gabea)?

(Eliza) Kristauak: Arrakastatsuak izatetik Galduen mailara igarotzen dira (bai, baina USA? Carter, etab.).

Aldo Mororen auzia: martiria baino hobeto; ez zen heroia: *galdua*.

*

Diskrezio-modu bat:
gauzak norberak egin, ez besteei eginarazi
autarkia enpirikoa
lotura afektiboa

*

Maite den norbanakoa atsedeen-leku izanik, afektuan funtsatzen ditu aukera gorenak.

Zergatik eragiten didan faxismoak izua

Bitartekaria

Ez nuen inoiz ulertzen non funtsatzen diren militantismoa, ideiak, etab.

Ideien indarra (zeren niretzat, eszeptikoa izanik, ez baitira egiaren instantziak).

Indarkeriarekin dudak harremana

Zergatik ez naizen inoiz sartzen indarkeriaren justifikazioan (ezta, beharbada, horren *egian* ere): ezin nukeelako (ezin nuen: baina bera desagerturik, berdina da) jasan (*jasanezina*) berari egin izango liokeen mina; beraren aurkako indarkeria izango zen, eta ni, berriz, indarkeriaren objektua.

*

Amari buruz hitz egitea: e, zera, Argentina, faxismo argentinarra, kartzelaratzeak, tortura politikoak, etab.?

Horrek mindu egin izango zukeen bera. Eta izututa irudikatzen dut, han-hemengo manifestazioan ateratzen diren emakumeen eta amen artean. Nola sufritu izango zukeen galdu izan banindu.

*

Presentzia totala
absolutua

pisurik ez

dentsitatea, ez pisua

*

Hastea:

«Berarekin bizi izan nintzen denbora guztian —neure bizialdi osoan— amak ez zidan sekula egin iruzkinik».

*

Amak ez zuen sekula egiten iruzkinik: horregatik ez ditut jasaten.

(ikus FWren gutuna)

*

Ama: (bizitza osoa): erasorik gabeko espazioa, maltzurkeriarik gabekoa. Berak ez zidan inoiz egin iruzkinik (higuina ematen didate bai izen horrek bai horren izanak).

*

(1978ko ekainak 16)

Emakume batek, zeina apenas ezagutzen dudana eta bisitan joan behar natzaion, telefonoz deitu dit (gogaitu nau, beretzat hartu), alferrik, hau esateko: jaitsi honako autobus-geltoki honetan, kontuz ibili kalea zeharkatzean, geratuko al zara afaritara, etab.

Amak inoiz ez zidan esan halakorik. Inoiz ez ziztaidan mintzatu haur arduragabe bat banintz bezala.

*

1979ko martxoak 11

FMBk kosta ahala kosta aurkeztu nahi zidan Hélène de Wendel, emakume (mundutar) guztiz fin gisa, etab. Nik ez nuen batere gogorik, zeren eta:

—egia da, norbanakoen fineziaren egarri naiz, baina aldi berean badakit amari ez zitzaiola batere interesatzen mundua, edo gisa horretako emakumeak. Haren finezia erabat atopikoa zen (sozialki): klaseetatik haragokoa, markarik gabea.

*

Hendaia

Ez oso zorioneko
herentzia bat zen.

